

GRADUA: EAZ + ZUZENBIDEA

2020/2021 IKASTURTEA

IZENBURUA:

ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANA: BALORAZIOA ETA GENERO ARRAKALA GAINDITZEKO BIDEAK

EGILEA: Joyce Errasti Uribe

ZUZENDARIA: Patricia Peinado Martínez

Bilbo, 2021eko otsailaren 9a

CC lizentzia bidez "Aitorpena –EzKomertziala-BerdinPartekatu"



LABURPENA

Ordaindu gabeko etxeko lana hizpide hartuta, haren lan-izaeraren nondik norakoak aztertuko dira: 70. hamarkadako “Wages for Housework” mugimendutik hasita, gaur egungo Oinarrizko Errenta Unibertsalaren aplikaziora. Horrek, errenta ezberdintasuna (NBEko 2030 Agendako 5. eta 10. Garapen Iraunkorreko Helburuekin erlazionatuta) generoaren arabera lan banaketa oinarritzat hartuta ikuskatzea dakar. Gainera, alde batetik, ordaindu gabeko etxeko lanak daukan balio ekonomikoa aztertuko da, hura balioan hartzeak ekonomian izango lukeen eragina aintzat hartuta. Beste aldetik, lan honek sorturiko genero ezberdintasunak gainditzeko hartu daitezkeen politika ekonomikoa eta bestelako neurriak proposatuko dira. Azken finean, lanaren helburua da ordaindu gabeko etxeko lanaren inguruko egoera ikusgarri egitea eta hura gainditzeko bideak aurkitzea.

HITZ-GAKOAK

ordaindu gabeko etxeko lana, Oinarrizko Errenta Unibertsala, “Wages for Housework”, generoaren arabera lan banaketa, errenta ezberdintasuna generoaren arabera, lan erreproduktiboa, kontu sateliteak

RESUMEN

Partiendo del concepto de trabajo doméstico no remunerado, se procederá a estudiar su condición de “trabajo”, haciendo un viaje desde los movimientos “Wages for Housework” de los años 70 hasta la aplicación de la Renta Básica Universal en nuestros días. Así, se considerará la división del trabajo en función del género como origen de la desigualdad de renta respecto al género (Objetivos 5º y 10º de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030 de la ONU). De igual forma, se estudiarán tanto el impacto que este “trabajo no remunerado” tendría en el caso de integrarse en la economía real, como las medidas (fundamentalmente económicas) que se deberían tomar para superar las desigualdades de género en este ámbito. En definitiva, la finalidad de esta publicación es visibilizar la relevancia del trabajo doméstico en nuestra sociedad y examinar los medios para paliar y finalmente resolver los aspectos negativos que se generan.

PALABRAS CLAVE

trabajo doméstico no remunerado, Renta Básica Universal, “Wages for Housework”, división del trabajo en función del género, desigualdad de renta por género, trabajo reproductivo, cuentas satélite

ABSTRACT

An approach to unpaid housework focused on its labour-nature. The whole process from the 70s “Wages for Housework” movement to the establishment of the Universal Basic Income will be analyzed in order to dissect this reproductive-labour. Furthermore, gender division of labour will be the basis to understand income-inequality as defined by UN’s 2030 Agenda’s 5th and 10th Sustainable Development Goals. Firstly, the impact unpaid housework would have on real-economy will be figured out, and secondly, economic policies and other measures to avoid inequality regarding this topic will be put forward. Finally, the aim of this paper is to evaluate and make unpaid housework visible and to propose a way to overcome all unfair aspects implied in it.

KEY-WORDS

unpaid housework, Universal Basic Income (UBI), “Wages for Housework”, gender division of labour, income-inequality depending on gender, reproductive-labour, satellite accounts

LABURDUREN ZERRENDA

AEB	Amerikako Estatu Batuak
bb	batez bestekoa
BPG	Barne Produktu Gordina
COVID-19	2019ko koronabirusaren gaitza
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EEl	Espainiako Estatistika Institutua
et. al.	eta besteak
KGEE	Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea
KNES	Kontu Nazionalen Europako Sistema
KNS	Kontu Nazionalen Sistema
NBE	Nazio Batuen Erakundea
NDF	Nazioarteko Diru Funtza
NLE	Nazioarteko Lanaren Erakundea
oo:mm	Orduak eta minutuak
UN	<i>United Nations</i> (Nazio Batuen Erakundea)

TAULEN ETA GRAFIKOEN ZERRENDA

TAULAK

1. Taula. EAEn ordaindu gabeko etxeko lanari esker emakume eta gizonek sortutako BPGaren balioa eta horien arteko arrakala (milioi eurotan). 2003, 2008 eta 2013. urteak.	26
2. Taula. EAEn KSEn sartu gabeko etxeko lan ez-merkatukoaren eta ez ordainduaren balorazioa (eurotan). 2013. urtea.	27
3. Taula. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari eskaini zaion denbora KGEE Estatuetan azken urtean (minutuak eguneko). 2017. urtea.	40
4. Taula. Amatasun prestazioen bilakaera, hartzailearen generoaren arabera (ehunekoetan). 2017. urtea.	40
5. Taula. EAEn familia zaintzeko eszedentziak, generoaren eta zainketa motaren arabera. 2017. urtea.	41
6. Taula. EAeko 16 urte eta gehiagoko biztanleria, etxeko lanak egiteko maiztasunaren, generoaren eta jarduerarekiko erlazioaren arabera (milakoetan). 2017. urtea.	41
7. Taula. Merkatu-kanpoko eta ordaindu gabeko etxeko jarduera produktiboen balioa (milioi eurotan). 2010. urtea.	41

8. Taula. Merkatu-kanpoko eta ordaindu gabeko etxeetako jarduera produktiboen kontua (milioi eurotan). 2010. urtea.	42
--	----

GRAFIKOAK

1. Grafikoa. Berrogeita sei estatu garatu eta azpigaratuetan 2015ean ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari egunean eskaini zitzaion denbora (oo:mm).	14
2. Grafikoa. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari eskaini zaion denbora KGEE Estatuetan azken urtean (minutuak eguneko).	15
3. Grafikoa. EAEn 1993-2013 urte bitartean etxeko lanari eta merkatuko lanari batez bestez eskainitako gizarte-denbora (oo:mm).	17
4. Grafikoa. EAEn 1993-2013 urte bitartean etxeko lanean egunean batez bestez emandako denbora, generoaren arabera (oo:mm).	18
5. Grafikoa. EAEn 2017-2019 urte bitartean landunek etxeko lanetan egunean batez bestez igarotzen duten denbora (orduetan).	19
6. Grafikoa. EAEn 2017-2019 urte bitartean landunek ordaindu gabeko etxeko lanetan egunean ematen duten denborak azalarazitako genero-arrakala (minutuetan).	20
7. Grafikoa. EAEn 2003, 2008 eta 2013 urteetan ordaindu gabeko etxeko lanen balioak suposatu zuen BPGaren balioa eta emakume eta gizonen sortutako balioa (ehunekoak).	26

AURKIBIDEA

I.	SARRERA	7
II.	LAN ERREPRODUKTIBOA ETA ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAREN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA	9
1.	LAN ERREPRODUKTIBOA ETA ORDAINDU GABEKO LANA: MARKO- TEORIKOA	9
2.	ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAREN BILAKAERA EAE-n.....	14
III.	ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAK EKONOMIAN DUEN BALORAZIOA .	21
1.	KONTU NAZIONALEN EUROPAKO SISTEMA ETA KONTU SATELITEAK	21
2.	BALORAZIORAKO METODOAK.....	23
3.	ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAREN BALIOA EAE-n.....	25
IV.	GENERO ARRAKALA GAINDITZEKO NEURRIAK.....	28
1.	SOLDATA ESKAKIZUNETATIK OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALAREN APLIKAZIORA	29
2.	ORDAINDU GABEKO LANA ETA HARTU DAITEZKEEN POLITIKAK	32
V.	ONDORIOAK.....	37
	ERANSKINA I	40
	BIBLIOGRAFIA.....	43

I. SARRERA

Azken urteotan ordaindu gabeko lan erreproduktiboaren banaketa (eta zehazki, ordaindu gabeko etxeko lanaren banaketa) birantolatzeke beharra bide anitzei esker azaleratu da. Alderdi instituzionalari dagokiolarik, bizitza-pribatuarekiko kontziliazioa ekimen legalen helburu bilakatu da, besteak beste, urrutiko lanaren edo ordutegi aldaketaren eta aitatasun baimenaren aitortpenaren bidez. Alderdi sozialago bati begira, eragile sozialek bizitzak erdiguneratzen dituen ekonomiaren hazkunde eredu sostengarri baten alde egin izan dute (ekonomia soziala edo zirkularraren alde, kasu). Euskadin, 1993ko martxoaren 8an Euskadiko Emakume feministen Asanbladak lelotzat izan zuen «No al servicio familiar obligatorio: intsumisioa», eta urte batzuk beranduago, 2019ko martxoak 8aren oinarri ere izan zen «Bizitzak erdigunera! Zaintzak erdigunera!», zaintza-, enplegu- eta kontsumo-greba burutu zirelarik.

Bide beretik ekin dio Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Garapen Iraunkorreko 5. Helburuaren bidez, zeinak genero berdintasunari egiten dion erreferentzia. Hori horrela, NBEk helburutzat dauka gizon eta emakumeen arteko berdintasuna (NBE, 2020c), eta zehazki, haren azpihelburu da “ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lanen ezagutze eta balorazioa, zerbitzu-publikoen, azpiegituren eta babes-sozialerako neurrien eta erantzukizunen banaketaren bidez” (5.4 helburua¹). Honenbestez, etorkizunerako erronkatzat du ordaindu gabeko etxeko lanari gagozkiozkiolarik emakume eta gizonen berdintasunez burutu dezaten (gaur egunean emakumeek 3 aldiz denbora gehiago eskaintzen baitiote lan-mota honi, emakumeen segurtasun-ekonomikoan epe-luzeko ondorioak sorraraziz²).

Bestalde, lan hau COVID-19aren testuinguruan kokatzen da. Horren harira, emakumeek barneratuta daukaten zaintza-rol tradizionalak krisiaren aurrean jartzen ditu, haren ondorioak leuntzeko eginkizunean, hauek direlarik etxeko lan ez ordainduen %70a burutzen dutenak

¹ Garapen Iraunkorrerako 5. Helburuan hurrengoko azpi-helburuak barneratzen dira: i) Emakume eta nesken aurkako diskrimazioa gelditzea, ii) Emakume eta nesken aurkako indarkeria ezabatzea (esplotazio mota ezberdinak barneratuz), iii) Bortxako ezkontzak eta mutilazio genitala bezalako praktikak desagerraraztea, **iv) Zaintzak eta ordaindu gabeko etxeko lana aitortu eta baloratzea**, v) Emakumeek lidertza-aukerak izatea bermatzea, vi) Osasun eta eskubide sexual eta erreproduktiboetarako sarbidea bermatzea, vii) Baliabide ekonomikoetara eskubide berdinak emango dituzten erreformak sustatzea, viii) Emakumeen ahalduntzerako tresna izan daitekeen teknologiaren erabilera hobetzea; eta xix) Genero berdintasuna eta ahalduntzea bermatuko duten politikak eta legeak onartu, indartu eta sustatzea. Informazio gehiagorako: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/gender-equality/>

² Sakontzeko ikus Garapen Iraunkorrerako 5. Helburuaren aurrean dauden erronkak: <https://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2020/gender-equality-womens-rights-in-review-key-facts-and-figures-en.pdf?la=en&vs=935>

(Instituto de la mujer y para la Igualdad de Oportunidades, 2020, 9). Horrez gain, *UN Womenek* (NBE, 2020a) ere osasun-krisi bitartean emakumeek merkatuko eta merkatu-kanpoko lan gainkarga pairatu izan dutela adierazi du, kontziliaziorako zailtasunetaz gain, ikastetxeen itxierak, telelanak eta isolamenduak sortuak eta etxeak espazio lanpetuak bilakatuz (eskola, unibertsitate, lantoki eta beharrezko gaien pilaketa egiten den toki bihurtuz). Ondorioz, egoera honek azalera atera ditu gehienbat babes sozialaren inguruan dauden hutsuneak, zeinak emakumeek burutzen dituzten ordaindu gabeko lanak direla medio arintzen diren.

Ildo beretik, pandemia-egoera bitartean ordaindu gabeko lanek gora egin izan dute, zaintza-beharrek eta osasun-zerbitzuen itogarritasunak larritu baititu (NBE, 2020b, 2). Krisi honek agerian utzi du ezkutaturik dagoen eta emakumeek burutzen duten ordaindu gabeko lana dela ekonomia formalaren oinarria, generoaren arabera lan-banaketaren baitan dauden desberdintasunak areagotu direlarik (NBE, 2020b, 13).

Azkenik, gogora ekarri behar da gure gizartea zaintza-krisi estrukturala pairatzen ari dela, zaintzaren antolaketa tradizionalaren iraunkortasun ezari eta etxeko lanak berdintasunez berrantolatzeko beharrari erreferentzia egiten diona. Askotan, honi aurre egitearren zaintzen eta etxeko lanen azpikontrataziora jotzen da, eta horretarako kasu gehienetan atzerriko emakumeak kontratatzen dira (Ezquerria, 2010, 38-39).

Beraz, lan honen objektu dira feminizatuak diren ordaindu gabeko lanak: etxeko lanak, hain zuzen ere. Gai hauek guztiak lan erreproduktiboaren barne daude, askotan ikusezina den lana; eta horrela, nahiz eta gaiaren alderdi sozialaren oinarriak azalduko diren, ordaindu gabeko etxeko lanen balio ekonomikoan murgilduko gara, hurbiltze historikoa ere eginaz, eta airean dauden politika publikoak aztertuz.

Lan honen helburua ordaindu gabeko etxeko lanen alorrean, hau da, merkatutik kanpo burutzen diren etxeko lanen alorrean dagoen genero arrakala gainditzeko neurriak proposatzea da. Hala ere, xede orokorra ikusgarritasunik ez duen lan hau azalera ateratzea litzateke, ingurune akademikoan toki bat eskaintzea eta haren garrantzia balioan jartzeaz gain, bertan barnebiltzen diren problematiken (genero arrakalari dagokionez) aurrean har daitezkeen politika egokienak proposatzea.

Azken finean, gure egunean guztiok ikusi edo egikaritzen dugun lana da, gehienetan gizarteak baliorik ematen ez diona, eta horrenbestez, merkatuko lana baloratzen diren aldagai ekonomiko bidez lan hau ikusgarri bilakatu nahi da, irakurleak alderdi ekonomikoan lan honen inguruko hurbilketa zehatza jasoko baitu.

Lanaren antolaketari dagokionez, hurrengo atalean lanaren marko teorikoa aurkeztuko da, bertan lan erreproduktibo eta ordaindu gabeko etxeko lanen inguruko alderdiak azalduko direlarik

(hurbilketa historikoa, kontzeptuen definizioak, lan hauek sortzen dituzten balio motak etab.); eta ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) azken hamarkadetan, eta batez ere azken urteotan ordaindu gabeko lanen alorrean egon izan den bilakaera aztertuko da, lan horri eskainitako gizarte-denbora izpide izanik. Hirugarren atalean, merkatu kanpoko etxeko lanak ekonomian duen eragina ikertuko da, bereziki Barne Produktu Gordinean (BPG) duen pisua kuantifikatzera joko da. Laugarren atalean, berriz, lanaren helburu den genero arrakala gainditzeko neurriak proposatuko dira, horiek askotarikoak izango direlarik (zuzenak eta zeharkakoak)³. Azkenik, ondorioak mahaigaineratuko dira eta egilearen hausnarketa azaleratuko da.

II. LAN ERREPRODUKTIBOA ETA ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAREN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA

1. LAN ERREPRODUKTIBOA ETA ORDAINDU GABEKO LANA: MARKO-TEORIKOA

Dalla Costak eta Jamesek (1971, 5) azaldu bezala, gizarte patriarkal aurrekapitalistan ekoizpenaren erdian kokatzen ziren etxea eta familia, baina kapitalismoaren garapenarekin, ekoizpenaren sozializazioak lantegia hartu zuen erdigunetzat, gizonak soldatapeko langile bihurtuaz. Horrenbestez, etxetik kanporatuz joan ziren soldatapekoak erditu eta zerbitzatzen ez zituztenak: besteak beste, umeak, zeintzuk eskolara joaten hasi ziren.

Hortaz, sistema-kapitalistan produkzioa eta erreprodukzioa bereizten dira, eta beraz, merkantzien produkzioa eta erreprodukzioa alor kontrajarritzat hartzen dira, nahiz eta estuki loturik dauden⁴. Produkzioak balioa sortzen duen bitartean erreprodukzioak ez-balioa sortzen du, etxeko lanen bidez emakumeak ezin baitu dirurik erosi (Fortunati, 2019, 81).

Hala ere, Carrasco Bengoak (2017, 55-57) azaldu bezala, erreprodukzioaren jatorrizko kontzeptua 1758an Quesnay-k sortutako *Tableau Economique*-etik ondoriozta daiteke, ekonomia ondasun-eta diru-fluxu bezala marrazten duelarik, prozesua jarraitua dela adieraziz bere baldintza propioak erreproduzitzen dituelako. Aurrerago, David Ricardo eta Karl Marx ekonomistek ideia bereganatu

³ Alor pribatuan (etxeko alorrean) genero arrakala aztertu ahal izateko familia tradizionalari ekingo zaio, bestelako familia motak (monoparentalak, guraso homosexualak dituzten familiak eta abar) etorkizuneko ikerkuntza zabalagoak du aztertzea.

⁴ Lan erreproduktibo eta lan produktiboaren kontzeptuek dikotomia hori mantentzen laguntzen dute, arazo nabarmen bat sortuz: eskema honek ez du lan bien eta espazio bien arteko harreman dinamikoetan sakontzen uzten, produkzio-, erreprodukzio- eta lan-prozesuen ulerkuntza ere oztopatuz (Carrasco Bengoa, 2017, 62).

zuten, baina erreproduzio sozialaren kontzeptua eskola sraffianoko kide zen Alfons Barcelo-k sortu zuen.

Gaur egun, Euskaltzaindiak honela definitzen du lan erreproduktiboa: “lanaz mintzatuz, giza ugalketarako beharrezkoa dena, haurdunaldiaz eta erditzeaz gain, giza bizitzak iraun dezan beharrezkoak diren gainerako lanak (elikadura, zaintza, hezkuntza, etxeko lanak...) ere hartzen dituen”. Lan honen ezinbestekotasunari erreferentzia eginaz, 2008ko krisi ekonomikoak argi utzi zuen emakumeek burutzen dituzten etxeko lan ez ordainduen papera familien sostengu bezala. Pérez Orozcok (2014, 146) Del Moralén ekarpena gogora ekarriz azpimarratu bezala, “langabeziaren zifra kezkarriek eta krisi-testuinguruan familia askoren iraute-estrategiek agerian uzten dute etxeen ongizateak ez duela soilik oinarritzat bere kideek lan-merkatuan duten egoera, baizik eta haren oinarri dela ekintza-sare konplexu eta anitza, ordaindu gabeko espazio eta denboran garatzen dena; hau da, lan erreproduktiboa”.

Halatan, Beneriak (2019, 131) bildutako Edholm, Harris eta Young-en ideiak hona ekarrita, erreproduzioaren hiru alderdi ezberdin daitezke: i) gizarte-erreproduzioa; ii) lan-indarraren erreproduzioa eta; iii) erreproduzio biologikoa. Lehenengoak sistema-sozialak irauteko baldintzei egiten die erreferentzia (besteak beste, belaunaldiz belaunaldi baliabide ekonomietara sarrera eta kontrola transmititzeak dakar), bigarrenak pertsonak langile bilakatzearen prozesuari egiten dio erreferentzia, eta azkenak, gizakien garapen fisikoari eta bereziki seme-alaben hazkuntzari. Beraz, alderdi guzti hauek biltzen dute erreproduzioa edo lan erreproduktiboa, eta familia-eremuan ematen da. Horrenbestez, lan erreproduktiboa osatzen duten alorrak anitzak izanik, ordaindu gabeko lan erreproduktiboan murgilduko gara, eta zehazki, ordaindu gabeko etxerako lana aztertuko dugu orri hauetan zehar.

Ordaindu gabeko lanek rol ekonomiko hirukoitza dute: i) ongizatearen handitzea; ii) ongizatearen hedapena; eta, iii) lan-indar bezala merkatuan integratzen den biztanleriaren zatiaren aukeraketa (Pérez Orozco, 2014, 155). Hala, harreman estua dago merkatu-eremuaren eta merkatu-kanpoko eremuaren artean, haien artean elkar-elikatzen direlarik⁵.

Etxeko lanak, zehazki, autokontsumorako (eta ez merkataritza-trukerako) ondasun eta zerbitzuak ekoizten ditu; hau da, familiaren berehalako kontsumorako erabilera balioa sortzen du, baina ez truke-balioa. Beraz, familia-esparru pribatuan egikaritzen den lana da, lan-indarra produzitzen duena (Pérez Orozco, 2006, 94). Horrez gain, besteak beste, ezaugarri hauek biltzen ditu (Bizkaiko Foru Aldundia, 2003, 20): zeregin anitzek osatzen dute, espazio pribatuan ematen da,

⁵ Adibidez, sukaldaritzari dagokionez, merkatuko produktuak bereganatu eta elikagai izan daitezen eraldatzen dira etxean.

ordutegirik eta atsedean edo opor-egunik ez dago (astean 7 egunetan egunean 24 orduz jarduten da), denbora mugarik ez da zehazten (bizitza osoan zehar egiten da), jarduera egikaritzearen truke ez da ordainsaririk jasotzen eta ez du lan-zuzenbidean aitorpenik.

Hala ere, aipatu daitekeen ezaugarri nagusia merkatutik kanpo gauzatzen den lana dela da, eta beraz, ez du truke-baliorik, sortzen dituen erabilera-balioak kontsumo propiorako helburua baitute (Albarracín, 1988, 2). Merkatutik kanpo gauzatzen dela esaten denean, ez zaio soilik erreferentzia egiten sortutako balioa merkatuan trukatu ezin delarik, baizik eta subjektuen (familia-kideen) arteko harremanak merkatutik kanpo duela oinarria azpimarratu behar da, familiaren instituzioaren baitan generoaren arabeko-lan banaketan duelarik bere funtsa.

Arestian aipatu bezala, truke-baliorik sortzen ez duen, baina gizartearen iraupenerako beharrezkoa den lana da. Horrenbestez, Albarracín-ek (1988, 3) sor daitekeen zalantza azaleratzen du: “*etxeko balioa* edo *etxeko produkzioa* bezalako kontzeptuen existentzia ondorioztatu al daiteke?”. Eztabaida honek berebiziko garrantzia dauka orri hauetan landuko den gaia aztertzerako orduan; izan ere, etxeko lanaren balioespen ekonomikoa garatuko da (denbora eta beste aldagai ekonomikoetan neurtuta) eta lan-eremu honetan sortutako arrakalak gainditzeko sortu izan diren neurriak edo har daitezkeenak aztertzerako orduan baliagarri izango zaigu.

Lehenengoari dagokionez, etxeko lanean ez da lan-indar baliorik sortzen, horren barne sartzen baitira bai soldatapeko lana eta bai etxeko lana erreproduzitzeko beharrezko gaiak (Albarracín, 1988, 5). Gainera, merkatu-ekoizpenean ez bezala, etxeko lanak ekoiztiko erabilera balioa ez da trukerako baliagarria, baizik eta merkatuan saldu beharrean, familiaren barne kontsumitzen dira; eta horrela, ekoiztikoak ez du merkantziaren formarik eta ez da merkatu-ekoizpenaren mota bat (Harrison, 1975, 15). Honenbestez, ordaindu gabeko etxeko lanak erabilera-balioa besterik ez du sortzen, beste mota batetako balioak eragiten ez dituelarik, eta beraz, «etxeko baliorik» ez dagoela ondoriozta daiteke. Labur, produkzio-prozesuan lan-indarraren truke-balioa sortzen eta erabilera-balioa kontsumitzen ez den bitartean, erreprodukzio-prozesuan erabilera-balioa sortzen eta truke-balioa kontsumitzen da (Fortunati, 2019, 129-130).

Bigarrenari dagokionez, «produkzioa» gizarteak bere iraupenerako beharrezkoak dituen bitartekoak ekoizteko modua da, eta beraz, etxeko lanean familia ezberdinetan burutzen den lanaren artean inongo harreman-materialik ez egonagatik, ekoizpen-patriarkala kontzeptua baztertu behar dela esaten da (Albarracín, 1988, 3). Alabaina, erabilera-balioa sortzeaz gain, lan erreproduktiboa gainbalioaren produkzioarako oinarritzkoa da, eta modu hortara lan produktibotzat

ere har daiteke, gainbalioa produzitzen baitu (Dalla Costa et al., 1971, 16). Fortunatik ere (2019, 37) «produkzio naturalizat» jotzen du erreprodukzio-prozesua⁶.

Alabaina, bi alderdi hauek erreparatuta etxeko lana merkatutik kanpo kokatzeak etxeko lanaren oinarria aztertzeraz eramanen gaitu, zeina generoaren arabera lan banaketa den⁷. Lan banaketa honek balioari eta lan anitzei dagokienez generoaren baitako ezberdintasunak daudela suposatzen du. Hori horrela, lanaren balio ekonomiko (soldata eta eskubide kontributiboak dagokienez) eta gizarte-aintzatespenaren artean alderantzizko korrelazioa sortzen da: maskulinizatutako lanetan zenbat eta handiago izan balio ekonomikoa, orduan eta handiagoa izango da gizarte-aintzatespena, feminizatutako lanean kontrako izango delarik (Pérez Orozco, 2014, 172). Merkatu-lanetan ere banaketa hau ohikoa izaten da; izan ere, emakumeen ordaindutako jarduerak etxeko lanaren luzapena dira sarritan (Benería, 2019, 139). Horren adibide dira merkatuko feminizatutako lanak: eskuz jositakoa, sukaldaritza, umeen zaintza, artisautza, etabar.

Horrenbestez, etxeko lanari eta zaintza-lanari buruz ari garela, ordaintzen ez diren eta feminizatuak diren lanei egiten zaie erreferentzia, funtsa generoaren arabera lan banaketa delarik, eta merkatutik at kokatzen diren lanak direlarik. Azken finean, azken ezaugarri honek eta emakumeek gizartean duten «boterea» direla eta, lan hauen ezkutatzea edo ikusgarritasun-eza zabaldurik dagoen fenomeno da. Honek zaintzaren paradoxara garamatza: beharrezkoa den lana da, baina ezkutukoa; izan ere, alde batetik bizitzaren garapenerako ezinbestekoa da, eta beste aldetik, gizarte-zientzien eta zientza-ekonomikoen aztergaietan atzean utzi izan da (Scarafonik aipatu lez, 2016, 128). Ikusgarritasun-ezak ere estrategia bati erantzuten dio: etxeko lanen eta zaintzen ezkutatzeak merkatu-kanpoan sor daitezkeen tentsioak despolitizatu ditu, generoaren arabera lan banaketa naturalizatzaren ondorioz gizarte-gatazka bakarra merkatu-ekoizpenean ematen dela kontsideratuz (Carrasco Bengoa, 2017, 58). Pérez Orozco-k (2014, 177) azaldu bezala, ezkutatzeak erreferentzia egiten dio pilatzen diren eta intersekzio bat osatzen duten gabezien multzo zabalari, honen emaitza izanik lan mota hau (eta hura ezaugarritzen duten baldintzak eta kontribuzio sozioekonomikoak) eztabaida politiko eta publikotik kanpo uztea.

⁶ Beste ingurune feministetan ere erreprodukzioa produkzio-sistematizat hartzea galdatzen dute. Ikus, adibidez, Kattalin Miner idazleak Argia astekarian partekatutako iritzia: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2460/lan-erreproduktiboa>.

⁷ Testu honetan «generoaren arabera lan banaketa» kontzeptuaren alde egin izan da, haren sinonimo izan daitezkeen «lan banaketa sexuala» edo «lan banaketa sozio-sexuala» kontzeptuak baztertu direlarik. Izan ere, banaketa mota honek sexuarekin baino, generoarekin eta genero baten edo beste baten arabera sozializatzeko moduarekin duela harremana ulertzen dut.

Azkenik, dokumentu hau gure gizartea zaintza-krisi estrukturala igarotzen ari den testuinguruan ematen da; zaintza-krisi horren jatorri direlarik emakumeen sarrera lan-merkatura, biztanleriaren zahartze-progresiboa, Ongizate Estatuaren arduragabekeriak, zaintza-prozesu kolektiboak desagerrarazi dituzten hazkunde-urbanoko eredu berriak, eta eguneroko bizitzaren prekarizazio eta atomizazioa (Ezquerria, 2010, 38). Krisi hau bai antropologiaren eta bai ekonomiaren alorretan kezka sorrazten dituzten ondorioen iturburu litzateke; besteak beste, amatasuna eta lan-, gizarte- eta ekintza-politikoaren arteko bateraezintasunaren adierazgarri den egun dagoen jaiotze-tasa baxua (Comas d'Argemir, 2014a, 5). Horrela, azpikontrataziora jo izaten da: mendebaldeko demokrazia liberaletako Ongizate Estatuak irtenbiderik eman ezin dion krisiari, Periferiako Estatu⁸ krisiak gehitzen zaizkio, zeintzutatik etxeko lan eta zaintza lanetarako etxeko langileak/zaintzaileak inportatzen diren (Ezquerria, 2010, 39)⁹.

Comas d'Argemir (2014b) «maitasun-ekonomiaz»¹⁰ mintzo da, balio-ekonomikoa daukaten lanak baitira (merkatuak edo Estatuak hauek egikaritzean argi gelditzen da hori), eta familiaren barne ematen direnez gero gastu publikoa aurrezten dute. Ondorioz, ordaindu gabeko etxeko lana «benetazko lantzat» hartzea da genero-berdintasunaren aldeko borroka-politikoaren helburuetako bat, emakume eta gizonen arteko harremanen-alorrean eta etxe, enpresa- eta Estatu-ekonomietan aldaketak gauzatzuz etxeko lanaren birbanaketa-neurrien helburu den bezala (Durán Heras, 2012, 41).

⁸ Periferia-Zentro Egiturak Estatu garatu eta azpigaratuei erreferentzia egiten die, nazioarteko lan banaketa oinarritzat hartuz. Espainiaren kasuan, Periferiako Estatu hauek lirateke gehien bat Hego Amerikako Estatuak (Ekuador, Peru, Kolonbia...) edota Ipar Afrikako Estatuak (Maroko, Tunisia...), zeintzutatik zaintza lanetan eta etxeko lanetan aritzen diren langileak etortzen diren.

⁹ Azpikontratazio pribatuaren gaia, eta beraz, ordaindutako etxeko lanarena, ez da dokumentu honetan landuko, hemen soilik ordaindu gabeko etxeko lanen inguruan arituko garelarik.

¹⁰ Maitasun-ekonomia definituko bagenu, eta beraz, ondoren azaldutakoa laburtu beharko bagenu, lan erreproduktiboak (zaintza eta etxeko lanek) ezaugarritzen duen ekonomia litzateke, lan erreproduktibo hori gehienetan “maitasun-testuinguru” baten ematen delarik eta jarduera horien esentzia afektua edo estimua izaten delarik. Gainera, ekonomiatzat hartzen da, lan horien kostua etxeetan barneratzen delako, lan horiek balio-ekonomikoa dutelako eta gastu publikoaren mesederako direlako (adibidez, umeen zaintza etxean ematen bada, haurtzaindegirik ez da behar izaten).


2. ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAREN BILAKAERA EAE-n¹¹

Azken hamarkadetan denbora-erabilerari buruzko inkesta eta ikerketak eguneroko bizitzaren analisi sozial eta ekonomikorako ezinbesteko tresna bilakatu dira; batez ere, normalean estatistika ofizialek bazterrean uzten dituzten jarduera multzoak (etxeke lana eta zaintza lana, kasu) aztertzerako garaian (Rodríguez Álvarez et al., 2017, 166). Hori horrela, atal honetan ordaindu gabeko etxeke lanaren inguruko datuak aztertuko dira, denbora-erabilerari eta beste zenbait aldagairi erreferentzia eginaz. Horretarako, lehenengo eta behin mundo mailako sailkapena jorratuko da, hainbat herrialderen egoera aztertuz, eta ondoren EAEko kasuan sakonduko da.

Orokorrean, emakume gehiagok lanaldi murriztagoak dituzte (haiek eskatuta edo beste aukerarik ezean), nahiz eta egunaren amaieran, ordaindu gabeko lana gehituta, emakumeek gizonak baino ordu gehiago sartzen dituzte lanean (Nazioarteko Lanaren Erakundea, 2016, 19-20). Izan ere, gizonak lanaldi luzeagoak izan ohi dituzte, bai soldatapeko lanean eta bai auto-enpleguan.

2.1. MUNDUKO IKUSPEGI OROKORRA

1. Grafikoa. Berrogeita sei estatu garatu eta azpigaratuetan 2015ean ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari egunean eskaini zitzaion denbora (oo:mm).




Iturria: Nazioarteko Lanaren erakundea (2016, 21)¹². Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

¹¹ Urtero jarraipen bat egiten ez zaion gaia da ordaindu gabeko etxeke lana, eta beraz, datuen sarritasunean funts falta dago. Horregatik, Eustatek (2015) egindako txostena izango da oinarri, zeinetan 2003-2013 urte bitarteko datuak aztertzen diren. Honekin batera, Emakundek (2018) adierazitako 2017ko datuak ere erabiliko dira. Gainera, ahal den heinean, eguneratuak dauden datuak ere baliatuko dira.

¹² Grafiko honetan enplegua duen biztanleriari egiten zaio erreferentzia, gure lanean gizon eta emakumeen “egoera pareko” batetik ekingo diogulako. Argi dago langabeak ekuazioan sartuz gero zenbakiak, eta beraz,

1. Grafikoak argi uzten du guztirako lanean genero batek edo besteak herrialde azpigaratu edo garatuetan ematen duen denboraren artean dagoen aldea esanguratsua dela¹³. Emakumeen kasuan, oro har, herrialde azpigaratuetan lanean ordubete eta 11 minutu gehiago ematen da (ordaindutako eta ordaindu gabeko lanetan). Era berean, ordaindu gabeko lanei 41 minutu gehiago eskaintzen zaie. Gizonen kasuan, herrialde azpigaratu eta garatuetan ematen den lan-denborak ez du emakumeen kasuan hainako ezberdintasunik: herrialde azpigaratuetan gizonak 23 minutu gutxiago eskaintzen diote ordaindu gabeko lanari garatutako herrialdeetan baino. Herrialde garatu gehienetan ordaindutako lanaren igoerak ordaindu gabeko lanaren jaitsiera konpentsatu du, eta gainera, 13 Estatuetan (Austria, Suedia, Reunion, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suitza, Finlandia, Bulgaria, Japonia, Espainia eta Danimarka) gizonak ordaindu gabeko lanen parte-hartzea handitu dute (LNE, 2016, 21). Ildo beretik jotzen dute Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen (KGEE) estatistikek lan bakoitzaren denbora eskerga aztertuz.

2. Grafikoa. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari eskaini zaion denbora KGEE Estatuetan azken urtean (minutuak eguneko).



Iturria: KGEE (2020)¹⁴. Egiletza propioa.

2. Grafikoan ikus daitekeen bezala, ordaindu gabeko lana lan feminizatua dela ondoriozta daiteke, gizonak ere hortan jarduten dutelarik, baina emakumeek kasu askotan gizonen ordu bikoitza igarotzen dutelarik ordaindu gabeko lanak egiten. KGEEko Estatu batez bestekoa aztertuz,

analisia goitik behera aldatuko litzatekeela. Helburua, hortaz, egoera berdintsu bat oinarritzat hartuz gizonak eta emakumeak ordaindu gabeko etxeko lanetan diharduten denbora aztertzea litzateke.

¹³ Enpleguak beharrezko langabeak aztertuko bagenu aldea askoz handiagoa izango litzateke (Nazioarteko Lanaren Erakundea, 2016, 20).

¹⁴ Ikus Lehenengo Eranskineko 3. Taula zehaztasun gehiagorako.

emakumeek ordaindu gabeko lanean eta ordaindutako lanean igarotako denbora antzekoa da (262,4 eta 217,7 minutu, hurrenez hurren), eta gizonen kasuan, ordaindutako lanean (317,4 minutu) ordaindu gabekoan (135,8 minutu) baino denbora bikoitza baino gehiago ematen dute. Azpimarragarria da nahiz eta emakumeek gizonen baino ordu gutxiago sartu ordaindutako lanean, orokorrean ordu gehiago ematen dituztela guztirako lanean (KGEEko batez bestekoan 26,9 minutu, Espainian 73,8 minutu eta 29,3 minutu gehiago, adibidez).

2.2. EAE

EAEri gagozkiolarik, eta testuingurua osatzeko, alderdi ezberdinak aztertzeari ekingo diogu (Emakunde, 2018, 93, 94, 97). Hasteko, 2017an eman ziren amatasun prestazioetatik¹⁵ %95a emakumezkoek jaso zuten, eta gainerakoa (%5a) gizonetzkoek. Goranzko joera ari du izaten, 2003an datuak %97,3 eta %2,7 eta 2008an %96,3 eta %3,7 zirelarik, hurrenez hurren. Hala ere, generoen arteko aldea oraindik izugarria da. Gainera, familia zaintzeko eszedentzien alorrean¹⁶, amatasun prestazioan gertatzen den bezala, 2017an honetaz baliotu ziren gehienak emakumeak dira (%92,6a seme-alaben eta %82,1a senitartekoen zaintzaren kasuan). Datu hauek beste behin agerian uzten dute emakumeek haien sozializazioan garatzen duten zaintzaile-rola.

Hirugarrenik, 16 urte edo gehiagoko biztanleriak etxeko lanetan aritzeko maiztasunari dagokionez¹⁷, 2017. urtean emakume aktiboen %56,9ak (gizonen %43,1ak) eta ez-aktiboen %70,8ak (gizonen %29,2ak) ohikotasunez burutzen zutela dio, emakume aktiboen %15ak (gizonen %85ak) eta ez aktiboen %39,4ak (gizonen %60,6ak) inoiz ere lan horietan aritzen ez zirelarik¹⁸.

Azkenik, lanaren esparruari dagokionez, 2017an emakumeen soldata gizonetzkoena baino %33,6 txikiagoa izan zen, kontratu partzial gehienak emakumezkoenak izan zirelarik (%78,3a); emakumeen pentsioak gizonetzkoenak baino %40 txikiagoak izatea suertatuz (Goikoetxea et al., 2017, 103).

¹⁵ Ikus Lehenengo Eranskineko 4. Taula.


¹⁶ Ikus Lehenengo Eranskineko 5. Taula.

¹⁷ Ikus Lehenengo Eranskineko 6. Taula.

¹⁸ 2020. urteko bigarren hiruhilekoari dagokionez, etxeko lanak sarritan burutzen duen biztanleria aktiboaren %47,28a gizonak eta %52,72a emakumeak dira. Era berean, biztanleria ez-aktiboaren kasuan, %32,72a gizonak eta %67,28a emakumeak lirateke (Eustat, 2020ko uztailaren 21a).

Behin testuingurua osatuta, aztertzekoa da orokorrean ordaindu gabeko lanari eskaintzen zaion gizartekoitasuna. Izan ere, hurrengoko grafikoak (3. Grafikoak) adierazi bezala, urte askotan zehar merkatuko eta merkatu-kanpoko lan-denbora ia berdina izan da (minututako ezberdintasunarekin), «ezkutuko lan» honek denbora-eremuan gutxienez duen garrantzia azaleratuz. Adierazgarria da 1998. urtean 2 minutuko, 2003. urtean 5 minutuko eta 2008. urtean minutu bateko ezberdintasuna egotea bi lanen artean. Gainera, 2013an denbora gehiago eskaini zitzaion ordaindu gabeko lanari merkatuko lanari baino; izatez, suertatutako enpleguaren krisiak eguneroko beharrei aurre egiteko familia-ingurunera itzultzera behartu baitzuen (Eustat, 2015, 116).


3. Grafikoa. EAEn 1993-2013 urte bitartean etxeko lanari eta merkatuko lanari batez bestez eskainitako gizarte-denbora (oo:mm).



Iturria: Eustat (2015, 115). Egileak iturritik moldatutako grafikoa.

Etxeko lan horretan aritu izan diren gizabanakoei dagokienez, 4. Grafikoan adierazi bezala, gizon eta emakumeen artean dagoen arrakala izugarria dela ondoriozta daiteke. Izan ere, aztertutako urte gehienetan emakumeek gizonek baino 3 aldiz denbora gehiago igaro dute etxeko lanetan. Zehazki, 1993an 4 aldiz, 2003an 3,5 aldiz eta 2013an ia 2 aldiz biderkatu zuten emakumeek gizonek etxeko lanetan egunean emandako denbora.

4. Grafikoa. EAEn 1993-2013 urte bitartean etxeko lanean egunean batez bestez emandako denbora, generoaren arabera (oo:mm).




Iturria: Eustat (2015, 118). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

Hala, 1998 urtetik aurrera joera bat dagoela ikus daiteke: gizonak etxeko lanari denbora gehiago eskaintzen hasi zaizkio (1998 eta 2013 urte bitartean 36 minutu gehiago), emakumeak ere haien aldetik etxeko lanean denbora gutxiago igarotzen hasi direlarik (1998 eta 2013 urte bitartean 31 minutu gutxiago). Ausarta litzateke, halaber, generoaren araberako ordaindu gabeko lanaren transmisio bat egon dela adieraztea, aldaketa horren barne azpikontratazioa eta bestelako kontingentziak ere eman zitezkelako. Bestalde, 3. eta 4. Grafikoetan 2008 eta 2013 urteetan, oro har, etxeko lanari denbora gehiago eskaini izan zaiola adierazten da. Egia da azken grafiko hauek «etxeko andreak» eta «etxeko gizonak» ere barnebiltzen dituztela, eta beraz, 5. Grafikora jotzea komeni da, landunak oinarritzat izanik, gizon eta emakumeen artean egoera berdintsu batetik jotzeko.

Hori horrela, eta oraingoan azken hamarkadari so eginaz (5. Grafikoa), aurreko grafikoetan aipatutako antzeko joera hauteman dezakegu. Arestian azaldu bezala, 2013. urtean etxeko lanen jardueran gorakada bat izan zen, batez bestez 12 minutu gehiago eman ziren ordaindu gabeko etxeko lanetan, 2015ean behera egin zuelarik (gizonen beherakada emakumeena baino handiagoa da: 12 minutu 6 minuturen aurrean). Hortaz, 2017. urtean, 2013tik zetorren joera berreskuratuz, batez bestez etxeko lanei eskaintzen zaien denbora orekatu egin izan da 2019ra arte, gizonen kasuan 1,3 ordutan mantendu da eta emakumeen kasuan 2,2 ordutatik 2,1era jeitsi da. Horrez gain, emakume eta gizonen rol bikoitza ere antzematen da, gizonen kurbak gora eta emakumeenak behera egiten hasi direlarik: gizonek denbora gehiago eskaintzen hasi zaizkio ordaindu gabeko lanari, eta emakumeek gutxiago.

5. Grafikoa. EAEn 2017-2019 urte bitartean landunek etxeko lanetan egunean batez bestez igarotzen duten denbora (ordueta).



Iturria: Eustat (2020ko ekainaren 19a)¹⁹. Egiletza propioa.

3. Grafikotik 5. Grafikora berdintasuneranzko joera azter daiteke, gutxinaka sortuz doana, eta horrela, ordaindu gabeko lanen «demokratizazioa» goazela ondoriozta daiteke (Eustat, 2015, 117), azken finean arestian aipatutako alderdien joeraren (amatasun prestazioak, eszedentziak...) eta gizarte gaietan eman den kontzientziazioaren ondorioz. Hala ere, zenbait autorek adierazi bezala (Eustat, 2015, 118; Goikoetxea et al., 2017, 118), emakume eta gizonen lan ez ordainduari eskaintako proportzioa (Lan Zama Guztia) orekatu egin da emakumeek haien orduak murriztu dituztelako (oraindik emakumeen gehiengoa da lan hauetan aritzen dena), eta gizonen batez besteko orduak hazi dira lan hauetan aritzen den gizonen proportzioa ere hazi delako (ez denbora gehiago eskaintzen diotelako). Emakumeen murrizketa horren arrazoiak izan daitezke, besteak beste, gailu berrien bidez aurreztu daitezkeen denbora, lan honetan exigentziak behera egitea edota etxeko lanen azpikontratazioa jo izan delako.

Ondorioz, nahiz eta gizonen eta emakumeen lan-denboraren banaketan desberdintasun nabariak egon, aztertutako grafikoek banaketa-berdintsu baterako joera adierazten dute, emakumeak ordaindutako lanari denbora gehiago eskaintzen hasi direlarik eta alderantziz. Hala ere, azpimarratu beharra dago garapen hori emakumeen erabilera-balioak eraginda suertatu dela, gizonen (osotasunean ulertuta) portaeran gorabehera handirik egon ez delarik, eta beraz, generoaren araberako lan-banaketan aldaketa nabarmenik eman ez delarik (Rodríguez Álvarez et al., 2017, 178).


¹⁹ Erreferentziazat EAE hartu izan da, bai emakumeen eta bai gizonen datuak, eta soilik etxeko lanak dira oinarri. Horrela, batez bestekoa aztertu da, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019 urteei dagokiena.

Amaitzeko, genero arrakalak, emakumeen eta gizonen indizeen arteko aldeari egiten dio erreferentzia, alde zehatzetik zehazturiko aldagai bati dagokionez, bere funtsa sistema patriarkalak emakumeen eta gizonen artean ezarritako hierarkizazioa delarik²⁰. Bide horretatik, eta 5. Grafikoa kontutan hartuta, hau da, landunek ordaindu gabeko etxeko lanetan duten parte hartzea kontutan hartuta, genero-arrakala hurrengokoa dela adierazi daiteke:

$$OGGA_t = OGL_{et} - OGL_{gt} \quad (1)$$

Non $OGGA_t$ -k ordaindu gabeko lanaren genero arrakala adierazten duen t urtean, emakumeek e ordaindu gabeko etxeko lanari batez bestez eskainitako denbora (OGL_{et}) eta gizonek g batez bestez ordaindu gabeko etxeko lanari eskainitako denboraren (OGL_{gt}) arteko desberdintasuna delarik. Hurrengoko grafikoan (6. Grafikoa) arrakala hau irudikatzen da, $t = \{2011, 2013, 2015, 2017, 2019\}$ urteetan zehar.

6. Grafikoa. EAEn 2017-2019 urte bitartean landunek ordaindu gabeko etxeko lanetan egunean ematen duten denborak azalarazitako genero-arrakala (minutuetan)



Iturria: Eustat (2020ko ekainaren 19a) eta 5. Grafikoa. Egiletza propioa.

6. Grafikoak adierazi bezala, gizon eta emakumeek burututako ordaindu gabeko etxeko lanetan emandako denborari dagokion genero-arrakalak beheranzko joera du, baina ezberdintasuna oraindik nabarmena dela argi dago: 2015ean 54 minutuko arrakala izatetik, 2019an 36 minutukoa izatera igaro da. Halatan, ordaindu gabeko etxeko lana da emakume eta gizonen artean arrakala handien dagoen jarduerak, etxeko lanaren antolaketa desorekatuan genero ezberdintasunen erroak

²⁰ Euskaltermek emandako definizioa, *Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegiaren* barne dagoena.

diraularik (Eustat, 2015, 119). Arrazoiketa hau dela medio jo da ikerketa honen laugarren atalean arrakala hori murrizteko neurrien azterketara.

III. ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAK EKONOMIAN DUEN BALORAZIOA

1. KONTU NAZIONALEN EUROPAKO SISTEMA ETA KONTU SATELITEAK

Kontu Nazionalen Sistema (KNS) kontabilitate nazionala kodetzeko NBEak zuzendutako saiakera da, munduko Estatu gehienek haien kontabilitate nazionaleko kontzeptuak eta jardunbideak KNSren gidalerroak jarraiturik burutzen dituztelarik (Counting Women's Work, 2018, 4). Gidalerro horien arabera, merkatu ekonomian inputen eta outputen balioak berdina izan behar du: ordaindutako etxeko langileen sortzen den produktua, soldata eta produktibitatea berdinak izango dira (Duran Heras, 2012, 60; LNE, 2011,2). Hori horrela, Kontu Nazionalen Sistema²¹ egoki bat ezartzea neurri politiko eraginkorrak hartu ahal izateko beharrezkoa da, argi izan behar delarik zer den aztertzen dena, nola neurtzen den eta zer motatako harremana daukaten aztergai diren gaiek (Duran Heras, 2012, 56).

Halatan ere, sistema honek muga aunitz ditu (besteak beste produkzio mugak baldintzatzen du), eta beraz, Estatu bakoitzeko Kontu Nazionalak zehaztuko dute zein produkzio-aktibitate barneratzen diren bertan (KGEE, 2018, 9). Hartara, «ezkutuko ekonomia» deritzona, hau da, ordaindu gabeko etxeko lana Kontu Nazionalaren Europako Sistemaren mugetatik kanpo kokatzen da, esparru honetan ez dagoelarik merkaturako ekoizpenerako bezalako ezagutza sistematikoa eta aldizkako tresnarik²² (Duran Heras, 2012, 59).

Kontu Nazionalen Europako Sistemako eta haren kanpoko lana elkarloturik daude, batera makroekonomia osatzen dutelarik; hala, ez daude guztiz banaturik, jarduerak mugaren alde batetik bestera mugitzen baitira. (Hirway, 2015, 13-14). Horrela, KNEStik kanpoko lanean murgilduz, «ezkutuko ekonomiaren» inguruan argitaratutako ikerketak partzialak, etenak, gutxi egiaztatutak, aurreragoko ikerketetan errepikatuak eta nazioartean homogeneizatu-ezinak dira, herrialde ezberdinetan Kontu Nazionalen bidez eraikitakoaren bezainbesteko azpiegitura indartsurik ez baitago (Duran Heras, 2012, 60).

²¹ Hemendik aurrera Kontu Nazionalen Europako Sistemaren (KNES) inguruan arituko gara, hura baita Espainian ezartzen den sistema ("SEC 2010").

²² Lan osoan zehar eta baita atal honetan ere ordaindu gabeko etxeko lanen inguruko aldizkako ezagutza mugatua dela kontutan hartu behar da, egin izan diren txostenak denbora-muga ezberdinetan jorratu baitira.

Modu berean, Eurostatek Kontu Nazionalen kalitatea eta haiek sortzen duten konfidantza goraiatzeko, aldi berean estatistika berriak ekoizteko saiakerak eta horiek eredu makroekonomikoetan sartzeko erabili beharreko baliabide guztien kalitate baxua azpimarratuz (Duran Heras, 2012, 124). Ildo beretik jotzen du Europako Banku Zentralak: alde batetik Barne Produktu Gordina herrialde bakoitzaren produkzioaren balio-erantsia ulertzeko adierazle egokiena dela aditara ematen du; eta beste aldetik, BPG ongizatearen aldierazle partziala dela, eta bolumenean ematen diren aldaketak ongizatean ematen diren aldaketetiko berdinak ez direla onartzen da (Duran Heras, 2012, 125).

Ondorioz, badirudi irtenbiderik errezena BPGaren kontzeptua eta haren barneko alderdiak moldatzea izango litzatekeela. Halere, hura aldatzeak kostu altua suposatuko luke, ohituren inertzia sortuko litzateke, moldaketek serieen balio-konparatiboak izorratuko lituzkete, eta batez ere, hura aldatuz gero gai edo prozedura berriak barneratzearen ondoriozko kaltetu eta onuradunen arteko gatazkak sortzearen beldurra dago, estatistikak aurreikus ezin dezakeen gaia delarik (Duran Heras, 2012, 125). Nahiz eta zailtasun hauek agerikoak izan, egia da BPGk produkzio materiala zehazteko dituen murriztapenak kritikatu izan direla; eta are gehiago, *Ongizatearen Kontu Nazionalen* defentsore direnek BPGak aberastasuna ez den bestelako alderdiak ahazteaz kexu dira (Duran Heras, 2012, 135).

Testuinguru honetan, “Measuring the Progress of Societies” konferentziaren²³ helburua izan zen politika publikoek balia zitzaketan aurrerabideen neurketa modu berri eta inklusiboagoak proposatzea; eta Eurostat Europar Batasunaren (EB) mailan amankomuneko-ongizatearen adierazleak bilatzen hasi zen, helburu eta erabiltzaile ezberdinak kontuan hartzen dituzten kontu sateliteen aldeko gutxikako aldaketa proposatuz (Duran Heras, 2012, 124, 135). Izan ere, Kontu Nazionalaren Europako Sistemako profilak generoaren arabera banatzeak etxeetako jarduera produktiboaren eta ekarpenen irudi akastuna emango luke, beharrezkoa izango litzatekeelarik, banaketa hori egiteaz gain ordaindu gabeko etxeko lana biltzen duten eta Kontu Nazionalaren Europako Sistemarekin aldera daitezkeen kontu sateliteak batzea (Counting Women’s Work, 2018, 4). Stiglitz-Sen-Fitoussi Txostenak ere etxeetako kontu sateliteen bidez merkatutik kanpoko jardueren neurrien eransketa gomendatzen du, denbora erabileraren eredu ere barneratuz; eta horrela, etxeetako jarduerak merkatuan integratzeak aurrerapausu-irudi faltsua eman dezan ekidinez (Duran Heras, 2012, 135-136). Hori horrela, ordaindu gabeko etxeko lanen kontu sateliteak produkzioaren kontzeptua zabaltzen du, sistematik ondoriozta daitezkeen guztizkoak eragiten dituelarik. (KGEE, 2018, 7). Halatan, turismo, osasun eta hezkuntzan gertatu bezala, ordaindu gabeko etxeko lanen alorrean ere kontu sateliteak sortu izan dira.

²³ 2007an Estambulén KGEEK babestutakoa

Kontu sateliteek, oro har, kontabilitate nazionalaren gaitasun analitikoaren zabaltzeko beharra adierazten dute, sistema-zentrala gainkargatu eta eten gabe. Ondorioz, ordaindu gabeko lanaren kontu satelitea kontu-sistema nazionalaren mugatik haratago doan hedapena da (Hirway, 2015, 18). Hala ere, zalantza bat sor daiteke: nola baloratu kontu satelite horien barne ordaindu gabeko etxeko lana?

2. BALORAZIORAKO METODOAK

Ordaindu gabeko etxeko lanen balorazioak, oro har, ordaindu gabeko lana moneta-unitateetan deskribatzean datza; adibidez, guztirako BPGren kalkuluaren estimazioa egitea ahalbidetuz (Hirway, 2015, 16-17). Merkatutik kanpo kokatzen den ordaindu gabeko etxeko jarduera produktiboen balioa zenbakitan jartzean askotan kritikatu izan ohi da balorazioa diru-kontzeptuan ematea. Egia da posible litzatekeela produkzio hori balioan ez jartzea edota bestelako bideak hartzea (kantitate fisikoetan neurtzea, kasu), baina arestian aipatu bezala, Kontu Nazionalaren Sistemarekin alderatu nahi izanez gero diru-kontzeptuan baloratu beharko da lan hau (EEL, 2015,13). Era berean, nazioarteko antolaketa eta gailurrek ere ideia hau babestu dute (Nazio Batuen Erakundeak, Garapenerako Nazio Batuen Programak, Lanaren Nazioarteko Erakundeak, Akziorako Beijineko Plataformak eta abarrek). Hala ere, tentuz ibili behar da ordaindu gabeko lana baloratzeko erabiliko den metodologiaren inguruan (Hirway, 2015, 16-17).

Jarduera baten balioa arlo ekonomikoan edota arlo sozialean neur daiteke. Ikerketa honetan alor ekonomikoari egingo diogu erreferentzia; alabaina, neurtzen hain zaila den balio-sozialari aipamen xume bat egitearren, etxeko lanak etxeetako bizitza-kalitatea hobetzea ahalbidetzen duela aitortu beharra dago (LNE, 2011, 2).

Alor ekonomikoan, ordaindu gabeko lanaren balorazioa burutzen den ahaleginaren desberdina da, soldata baten faltan balio bat ezartzen saiatzen baita; gainera, kasu gehienetan uste izaten da ordaindu gabeko lan hau bateragarria dela lan egindako ordu-kopurua orduko ordainsari batengatik biderkatzearekin (LNE, 2011, 5).

Etxeko produkzioaren balioa zein den jakiteko ezar daitezkeen neurriek bi motatako arazoak sortzen dituzte: alde batetik, etxeko lanaren kantitatearen neurketa, eta bestetik, kantitate horren balorazioa. Hori horrela, etxeko lanaren kantitatea inputen edo outputen fluxu bezala neur daiteke (Carrasco Bengoa, 1991, 255).

Inputen fluxuari dagokionez, ekonomista ezberdinek garatu eta erabiltzen duten estimazio metodoa da, eta lan honek merkatuan duen balioan oinarritzen da, hau da, soldata-tasen balorazioaren arabera (Carrasco Bengoa, 1991, 255-260). Outputen fluxuari dagokionez, metodo berritzaileagoa da, gutxiago zabaldurik dagoena. Azken honetan bi azpimethodo bereizten dira:

lehenik, guztirako produktuaren metodoa, zeinak etxeko produktibitatea neurtzen duen, hura eragiten duten faktoreak aztertuz, eta familiaren guztirako outputa neurtzen duen; eta bigarrenik, balio erantsiaren metodoa, zeina outputaren eta prozesu produktiboan erabiltzen diren inputen balioaren arteko tartearen arabera kalkulatzen den (Carrasco Bengoa, 1991, 255, 270, 272).

Halatan ere, inputaren eredia da metodo estandarizatuena eta ikasiena, nahiz eta kontabilitate nazionalaren ikuspuntutik nahiago izan outputaren produkzioaren balorazioa (EEI, 2015, 13; Hirway, 2015, 18). Aurrerago esan bezala, soldata-tasaren balorazioaren arabera zehazten da. Soldata langilearen ezaugarriek, lana burutzen den tokiak, enpleguaren formaltasun edo formaltasun-ezak, antolaketa erraztasunak eta eskaera kolektiboek ezaugarritzen dute (LNE, 2011, 2).

Ordaindu gabeko etxeko lana baloratzeko input-metodoei gagozkielarik bi ikuspuntu daudela azter daiteke: i) burututako ordaindu gabeko lanaren truke ordainsaria jaso izanaren ikuspuntua, ii) eta ordaindu gabeko etxeko lana burutzeko langile bati ordainduko litzaiokeen kopuruaren ikuspuntua (LNE, 2011, 5).

Lehenengo ikuspuntuaren barne bi aukera posible daude, i) ordainsaria ekonomian dauden **ordainsarien batez bestekoaren arabera** kalkulatzea, ii) edota ordainsaria langilearen sarrera efektiboaren arabera (**aukera-kostuaren arabera**) kalkulatzea (LNE, 2011, 5). Beraz, denboratarte bat etxeko lanari eskaintzeagatik (ordaindu gabeko lana) familiak ordaindutako lana gauzatuko balu zenbateko irabaziak sortuko litzatekeen kalkulatzen da, soldata-tasatzat merkatuko batez bestekoa edota aukera-kostua harturik (Carrasco Bengoa, 1991, 260; LNE, 2011, 5).

Bigarren ikuspuntuari dagokionez, **ordezkapen-kostua** baliatuko litzateke, bi metodo ezberdintzen direlarik: i) alde batetik hurbilketa orokorraren bidez etxeko langile batek etxeko lana osatzen duten jarduera guztiak gauzatzearen kostua (azpikontratazioa), ii) eta bestetik, hurbilketa espezialistaren bidez etxeko lan bakoitza burutzeko espezialista bat aritzearen kostua kalkulatuta (LNE, 2011, 5; Carrasco Bengoa, 1991, 260).

Gaur egunean ordaindu gabeko etxeko lanen kontu satellite sistematikoen bidezko metodoa da nagusi, nahiz eta nazioarteko metodologia baten inguruko adostasunik ez dagoen. Hala, ekonomia *mainstreamean* ordaindu gabeko lana kontu satelliteen bidez integratzea etorkizuneko erronka bat da (Hirway, 2015, 18). Kontu satelliteetan lanaren inputaren balioa estimatzen da, eta jarduera horrek merkatuan duen prezioa aztertu beharrean, jarduera hori norbaitek burutuko balu hura egikaritzen duen denboraren truke jasoko lukeen ordainsariaren balioa kalkulatzen da. Ondorioz, data-zama arindu eta gatazka metodologikoak desagerrarazten dira (Counting Women's Work, 2018, 23).

Espainiako kontabilitatean ere ordaindu gabeko etxeko lanak baloratzeko orduan inputen bidezko eredua erabiltzen da; izan ere, outputaren metodoak datu gehiagoren ekoizpena beharko luke etxeetan burutzen diren produktuen inguruan informazioa lortzearen (EEI, 2015, 13). Azken finean, outputaren ereduari jarduera bakoitzaren outputaren prezio eta kalitatearen inguruko datuak lortu beharra eta datu horiek lortzeko zailtasuna eta horren ondoriozko zehaztasun falta kritikatzeko zaio (Carrasco Bengoa, 1991, 270; Counting Women's Work, 2018, 23).


Azkenik, sor daitekeen azken zalantza ordaindu gabeko etxeko lanaren balorazioa zerga-aurreko edo zerga-ondorengo kontzeptuan egin behar litzatekeena da. Edozein kasutan, balorazio horren helburuaren arabera izango da aukeraketa: zerga-aurreko balorazioa lan honen kostu osoa baloratzeko baliagarria da, eta zerga-ondorengo balorazioa lan hau azpikontratatzeko edo norberak egiteko erabakia aztertzeke orduan baliagarria litzateke. Gainera, balorazioan kontutan hartu beharko litzateke bestelako merkatu-lanetan enplegu-emailearen esku dauden alderdiak (Administrazio Publikoari ordaindu beharrekoa, langileen osasun-sistemagatik ordaindu beharrekoa eta abar). Horrela, merkatuko egoerarekin alderatuta balorazioaren batez besteko altuagoa lortuko litzateke zerga-aurreko balorazioa egikaritzean (Counting Women's Work, 2018, 25).

3. ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAREN BALIOA EAE-n

EAEn, Eustatek **Etxeko lanaren Kontu Satelitearen** bidez aztertzen du ordaindu gabeko etxeko lanen gaia, Eurostaten gomendioa jarraituz inputen arabera baloratzen delarik, soldata-kategoria ezberdinak erabiliz erreferentziatuz (umeen zaintzaileena, giltzainena, etxeko garbitzaileenak, zerbitzu-pertsonalen langileena...). Ondorioz, produkzioaren balioa lortzeko ordaindu gabeko etxeko lana burutzen den ordu kopurua soldata estimazioagatik biderkatzen da, horrela, zergak gehitu eta diru-laguntzak kentzen dira, eta emaitza horri kapital finkoko eta bitarteko-kontsumoa gehitzen zaizkio (Eustat, 2004a, 10-11).

Hurrengoko grafikoan (7. Grafikoa) azken hiru Etxeko Lanen Kontu Sateliteak alderatzen dira, bakoitzean estimatu zen BPGn ehunekoa adierazten delarik.

7. Grafikoa. EAEn 2003, 2008 eta 2013 urteetan ordaindu gabeko etxeko lanen balioak suposatu zuen BPGaren balioa eta emakume eta gizonek sortutako balioa (ehunekoak).



Iturria: Eustat (2004b; 2010; 2016b). Egiletza propioa.

$$BPGE_{GA_t} = BPGE_{et} - BPGE_{gt} \quad (2)$$

Non $BPGE_{GA_t}$ -k Barne Produktu Gordinaren Ekoizpenean dagoen Genero Arrakala adierazten duen t urtean, emakumeek e ordaindu gabeko lanen bidez ekoitzi izango luketen Barne Produktu Gordinaren zenbatekoa ($BPGE_{et}$) eta gizonek g ordaindu gabeko lanen bidez ekoitzi izango luketen Barne Produktu Gordinaren zenbatekoaren ($BPGE_{gt}$) arteko desberdintasuna delarik. Horretarako ezinbestekoa da 7. Grafikoko datuekin batera adierazten den urte bakoitzeko BPG zein den jakitea, ekoizpen hura ehunekoetatik eurotara kalkulatu ahal izateko. Hurrengoko taulan (1. Taula) arrakala hau irudikatzen da, $t = \{2003, 2008, 2013\}$ urteetan zehar.

1. Taula. EAEn ordaindu gabeko etxeko lanari esker emakume eta gizonek sortutako BPGaren balioa eta horien arteko arrakala (milioi eurotan). 2003, 2008 eta 2013. urteak.

	2003	2008	2013
BPG Emakumeak	11.728,50	14.024,388	14.235,114
BPG Gizonak	3.909,50	5.617,612	7.106,886
ARRAKALA	7.819	8.406,776	7.128,228

Iturria: Eustat (2004b; 2010; 2016b). Egiletza propioa.

Oro har sortutako ordaindu gabeko etxeko lanaren balioaren %75a sortu zuten 2003. urtean emakumeek, 2008. urtean %72 izatera eta 2013. urtean %66,7 izatera igaro zelarik (Eustat, 2004b; Eustat, 2010; Eustat, 2016b). Genero arrakala balioaren eremuan ere badagoela argi adierazten da

grafikoan: 2013. urtean emakumeek gizonen bikoitza ekoitzi dute. Bestetik, ordaindu gabeko etxeko lanaren balioak BPGaren zenbatekoa osatuko lukeen ere aldatu izan da urte ezberdin hauetan, nahiz eta antzeko zenbakietan aritu (%28,7 eta %32,8 tartean mantenduz)²⁴. Hala ere, azken Etxeko Lanaren Kontu Satelitean murgilduko gara, hau da, 2013ko datuak aztertuko ditugu, argitaratutako azkenak baitira.

2013. urtean (Eustat, 2016a) ordaindu gabeko lanak 21.342.098 euroko balioa izan zuen, zeinaren proportzio handiena otorduena (%43a) eta ostatu ematearena (%31a) izan zen (9.244.594 eta 6.648.637 euroko balioa izan zutenak, hurrenez hurren). Hurrengo taulan (2. Taula) EAEn sortutako balioaren laburpena ikus daiteke.

2. Taula. EAEn KSEn sartu gabeko etxeko lan ez-merkatukoaren eta ez ordainduaren balorazioa (eurotan). 2013. urtea.

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Ostatua eskaintzea	6.648.637	2.498.047	4.150.590
Zainketak eta hezkuntza eskaintzea	3.772.392	1.346.510	2.425.862
Janaria eskaintzea	9.244.594	2.885.264	6.359.330
Arropa eskaintzea	1.624.586	345.169	1.279.417
Borondatezko lanak	51.909	38.216	13.693
ETXEKO LANAREN GUZTIRAKO BALIOA	21.342.098	7.133.206	14.228.892

Iturria: Eustat (2016a). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

Arestian azaldutakoa argi ikusten da 2. Taula honetan: janaria eta ostatua eskaintzea izan ziren balio gehien sortu zuten jarduerak (9.244.594€ eta 6.648.637€, hurrenez hurren, gainerako jarduerak sortutako balioak gutxienez bikoiztuz eta hirukoiztuz). Hala, borondatezko lanetan izan ezik, emakumeak izan dira balio-sortzailerik handienak, etxeko lanaren guztirako balioan gizonak sortu duten balioaren bikoitza sortu zutelarik. Bestalde, ezberdintasun handia dago arropa eskaintzearen atalaren barne: emakumeek gizonak baino ia 4 aldiz gehiagoko balioa sortu zuten.

²⁴ Ordaindu gabeko etxeko lanak BPGaren zein proportzio hartuko lukeen azertzean, jakin beharra dago 2008an industriak BPGaren %28a suposatu zuela, 2014an %23,8ra erori zelarrik (Vadillo, 2017). Ondorioz, 2008an EAEn balio berdina sortu zuten ordaindu gabeko etxeko lanek eta industriak, 2013an lehenengoek industriak baino balio altuagoa sortu zutela ondorioztatu daitekeelarik. Hau bat dator arestian aipatutako fenomenoarekin: krisi garaian ordaindu gabeko etxeko lanek nagusitasuna lortzen dute.

Horrez gain, guztirako balioei dagokienez, borondatezko lanena izan zen balio gutxien sortu zuen atala, 51.909€koa, hain zuzen ere.

EAEEn 2003, 2008 eta 2013 urteetako informazioa aurki daiteke soilik, momentuz. Hala, eta alderapen bat egitearren, Espainian 2010eko datuak aurki daitezke (alegia, EAEko 2008-2013 datu bitarteen arteko testuinguruan egongo ginateke). Horrela, Espainian ordaindu gabeko etxeko lanak 2010. urtean izan zuen balorazioa 426.199 milioi eurokoa izan zen — 286.299 milioi euro emakumeek eta 139.899 milioi euro gizonek egikaritutakoa — , balio gehien izan zuen jarduera otorduarena izan zelarik, 145.826 milioi euro — 103.395 milioi euro emakumeek eta 42.431 milioi euro gizonek — (EEI, 2015, 27)²⁵. Ondorioz, aurreko atalean portzentaietan aztertu den genero arrakala kasu honetan milioi eurotan adierazgarria da. Horrez gain, zenbaki hauei kapital finkoaren eta bitartekoen kontsumoa batuz gero²⁶ (20.516 eta 122.455 milioi euro, hurrenez hurren), merkatu kanpoko etxeetako jarduera produktiboen balio totala lor daiteke, 569.170 milioi eurokoa izan zena 2010. urtean (EEI, 2015, 34)²⁷. Balio hau BPGarekin alderagarria litzateke, 2010eko datuak kontutan hartuta ordaindu gabeko etxeko lana BPGaren %42,7a izan zelarik (EEI, 2015, 34).

IV. GENERO ARRAKALA GAINDITZEKO NEURRIAK

Aurreko atalean azpimarratu bezala, Kontu Nazionalen Europako Sistemako eta haren kanpoko lana harremanetik dauden esparruak dira; hortaz, autore askoren hitzetan ordaindu gabeko lanak ekonomian merkatu-lanak duen trataera izan beharko luke eta ordaindu gabeko langileak politika-makroekonomikoen eta lan- eta enplegu-politiken menpe egon beharko lukete (Hirway, 2015, 13-14).

Historikoki, galdatzen den trataera horrekiko hurbilketa anitz egon izan dira. Aipatzekoak dira, 70. hamarkadan sortutako “Wages for Housework” (Soldatak Etxeko Lanentzat) mugimendua, eta azken urteotan garatzen joan izan den Oinarrizko Errenta Unibertsalaren aplikazioa. Horiek hurrengo orrialdeetan aztertuko dira, ondoren ordaindu gabeko etxerako lana murrizteko, horren barneko genero arrakala gainditzeko eta emakumea lan-merkatuan txertatzeko har daitezkeen politika-publikoak azalduko direlarik.

²⁵ Ikus Lehenengo Eranskineko 7. Taula

²⁶ Kapital finkoko kontsumoa aktibo finkoek (hozkailea, garbigailua...) pairatutako narriadura barneratuko luke. Bitartekoen kontsumoak ekoizpen-prozesuan kontsumitutako ondasun eta zerbitzuei egiten die erreferentzia: janaria, adibidez (EEI, 2015, 29).

²⁷ Ikus Lehenengo Eranskineko 8. Taula

1. SOLDATA ESKAKIZUNETATIK OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALAREN APLIKAZIORA

Amerikako Estatu Batuetako ingurune feministek 1880 eta 1930 urte bitartean «etxeko iraultza handia» deritzon programa martxan jarri zuten, eta industria-kapitalismoaren bi alderdi, etxeko espazioa eta espazio publikoa eta etxeko ekonomia eta ekonomia politikoaren arteko banaketa zalantzan jarri ziren (Federici et al., 2019, 15). Edozein kasutan, XIX. mendeko etxeko soldataren aldekoak klase-ertaineko emakumeak ziren, haien botere soziala handitzea nahi zutenak eta askok etxeko lanari industria-lanaren eredia aplikatzea eskatzen zutenak (Federici et al., 2019, 20).

Aurrekoa aintzindari, New Yorkeko Soldatak Etxeko Lanentzat Komitea sortu zen 1972. urtean zehar²⁸ Paduan (Italian), Estatu ezberdinetako emakumeek burututako bileraren bitartez, helburutzat bakoitzak bere Estatuan etxeko lanen truke soldata jasotzearen kanpainia aurkeztea izan zuelarik (Federici et al., 2019, 24). Horrez gain, mezu argi bat bidali nahi zen: emakumeen lana lantzat hartu eta haren truke ordainketa jaso beharko lukete, emakumeei haien maitasuna eta sexualitatea errotik eraldatzeko aukera emanaz (Federici, 2013, 41). Gainera, soldatak langile-izaera aitortzen du, etxeko lanaren lan-baldintzak negoziatu eta borrokatzea ahalbideratuz. Azken finean, soldata jasotzeak kontratu-sozialaren parte izatea dakar (Federici, 2013, 37). Izan ere, nahiz eta inolako soldatarik ez jaso, emakumeek merkatu kapitalistan inoiz garatutako produkturik baliotsuena produzitzen dute: lan-indarra (Federici, 2017, 53). Era berean, emakumeak ez dira merkatuko lanen bidez lan-indarraren produkzio horretaz askatzen; hau da, bigarren merkatuko lan bat izateak ez du ordaindu gabeko lan erreproduktibotik askatzen, emakumeen rola modu ezberdinetan erreproduzitzen delarik; are gehiago, kasu askotan bigarren lan horiek etxeko lanaren hedapena izaten dira, lehenengo atalean azaldutako generoaren arabera lan-banaketa dela eta²⁹ (Federici, 2017, 54; Federici, 2013, 42).

Testuinguru instituzionalari dagokionez, 1945. urtean Ingalaterran onartutako “Family Allowance” eta 1935. urtean AEBn onartutako “Aid to Families with Dependent Children” diru-laguntzak kolokan jarri zituen 1970ko hamarkadako politiken joerak. Biek etxeko andreek jaso zezaketen eta haiena propio zen dirua errepresentatzen zuten (Federici et al., 2019, 19-29). Hala, AEBn diru-laguntzen jasotzaile ziren emakumeen aurkako kanpainia politikoa hasi zen, besteak

²⁸ Kontutan izan behar da testuinguru politikoari dagokionez, urte batzuk lehenago, 1968an, Frantzia langile-borrokak eztanda egin zuela, eta hura Europa eta AEBn zehar zabaldu zen (Federici et al., 2019, 36)

²⁹ 80. hamarkadan emakumeak soldapeko langilerian barneratu ziren, baina gaur egun ikus daitekeen bezala, etxeko lanetatik ez dira askatu (Federici et al., 2019, 37).

beste, Estatuko funtsen bitartez bizi ziren parasitoak izatea leporatzen zitzairen. Ondorioz, 1970ko hamarkada gizarte-asistentziarekiko harremanetan inflexio-puntu bat izan zen, eta programa horretako hartzaileei sistematikoki izen ona zikindu zitzairen. Diru-laguntzak emakumeen gai bilakatu ziren, lan erreproduktiboaren funtzioa eta balioa jokoan jarri zelarik (Federici et al., 2019, 28-29).

Soldatak Etxeko Lanentzat kanpainia ere gizarte-zerbitzuen inguruan ari zen. Izan ere, etxeko lanen truke soldata ordaindu arte, enplegataileek emakumeen bizkar aurrezten dituzten gizarte-zerbitzu ugariak, eta beraz, gizarte-zerbitzuak jasotzeko aukera izateko ordaindu gabeko etxeko lanen lan-izaera aitortzea ezinbestekoa zen (Federici, 2017, 66; Federici, 2013, 42). Horrela, ordaindu gabeko etxeko lanak hain balio txikia du, ezen garai hartan bizitza lanean igaro ondoren senarrarengandik jasotzen baitzuen emakumeak pentsiorako, gizarte segurtasunerako eta osasun-zerbitzuetarako eskubideak (Federici et al., 2019, 35).

Mugimendu eta eskaera hauei egindako kritikak haien izaeran dautza. Besteak beste, argudiatzen da erredukzionismorako joera izan dezakeela, genero-egitura konplexuak emakumeen rolera murriztuz. Gainera, etxekoandreei soldata ordainduz gero generoaren araberako lan-banaketa indartzeko arriskua egon daiteke (Weeks, 2011, 126, 137).

Azken urteotan, erreprodukzioaren krisia dela eta, eta prekarizazioaren ondorioz soldatapeko lana emantzipazio-bidetzat hartu ezin daitekeenez, etxeko lanaren truke soldata eskakizunak indartu egin dira: Mexikon 2014an Morenaren alderdiak ordaindu gabeko etxeko lanen truke soldata jakin bat jasotzea proposatu zuen; Venezuelan 2013an etxeko lanaren lan-izaera aitortzen zuen legea onartu zen, jubilazioa jasotzeko eskubidea emanez; eta beste Estatu batzuetan eztabaida mahaigaineratu zen. Ildo beretik, Soldatak Etxeko Lanentzat mugimenduaren inguruko gogoetak³⁰ Oinarrizko Errenta Unibertsalaren aldeko eskaerak suspertu ditu (Federici et al., 2019, 39).

Oinarrizko Errenta Unibertsala Estatuak ordaindutako sarrera da, bere ezaugarri nagusiak banakotasuna (pertsona bakoitzari ematen zaio, kontutan hartu gabe familiarik baduen, ez duen eta abar), unibertsaltasuna (guztiontzat izango litzateke, ez soilik errenta baxuko biztanleriarentzat) eta baldintzarik eza (jaiotzeagatik ematen da, bestelako alderdiak kontutan hartu gabe) direlarik (ToShare Begiratokia, 2020a). Modu hortara, oinarrizko errentak, sarrerak eta enplegua lokabetzen ditu, bizitzarako eta bizirauteko baliabide oinarrizkoetarako eskubideak

³⁰ Bitxia da etxeko lanaren eta lan konkretu batzuen artean dauden parkeidetasunak. Bide horretatik, eta “Wages for Housework” mugimendua oinarritzat, bestelako mugimenduak jaio dira, “Wages for Facebook” mugimendua, adibidez (Federici et al., 2019, 40).

berretsiz (Federici et al., 2019, 39). Ondorioz, soldatari gehitzen zaizkion diru-laguntzen ordeztan oinarrizko errenta proposatzen da, parte-hartze errentaren ordeztan baldintzarik gabeko errenta, eta kapital-dirulaguntzen ordeztan soldata-soziala³¹ (Weeks, 2011, 139). Hori horrela, errentaren zenbatekoaren inguruan eztabaidak daude³²; edozein modutara, zenbateko horrek zehaztuko du soldata baxuko lanei laguntza bat eskaini edota banakoei lan horietatik irteteko askatasuna ematen dien (Weeks, 2011, 138).

Azken finean, Oinarrizko Errenta Unibertsalaren herritar guztiek bide anitzetatik gizarte-kontribuzioak gauzatzen dituztela aitortzen du, barne hartuz diru-baliorik ez dute eta neurgarriak ez diren kontribuzioak ere: ordaindu gabeko etxeko lana, kasu (Weeks, 2011, 143). Lan hau murrizteko, horren barneko genero arrakala gainditzeko edota emakumea lan-merkatuan txertatzeko erraminta bezala hiru alderdi ezberdinak daitezke (Weeks, 2011, 144-145). Lehenik, errenta honen ezarpenak banakoei ordaindutako lanetan eta ordaindu gabeko familia-lanetan aritzea errez dezake, ordaindutako lanera daukan menpekotasuna askatuz. Bigarrenik, desberdintasun eta arrakala ezberdinak murrizteko bidetzat har daiteke. Hirugarrenik, askatasunerako bidea ere bada, erabaki libreak hartzeko aukera zabaltzen duelako.

Soldatak Etxeko Lanentzat mugimenduaren proposamenekin alderatuta, ezarpen eremua zabalagoa litzateke³³. Izan ere, lehenengoan subjektu politikoa etxekoandreetara mugatzen da, oinarriztat baitute emakume guztiek amankomunean dutena dela etxekoandre izatea. Hau da, etxeko lanen genero araberako banaketa funtsezkoa zen genero arrakala eta generoen arteko hierarkia ulertzeko, eta horrela, emakumeek partekatutako testuingurua izango litzateke. Oinarrizko Errentak, aldiz, soldata-sistema eta familiaren instituzioaren arteko bateraezintasuna gainditzeko errenta banaketarako tresna bilakatuz (Weeks, 2011, 147-148).

Oinarrizko Errenta Unibertsalaren aldekoek, arestian aipatutakoaz gain, lan erreproduktiboak krisietan zehar ere mantentzen direla gogorarazten dute, eta horrela, haiek proposatutako sistemari genero ikuspegia ezartzea nahitaezkoa dela argudiatzen dute (Babiker et al., 2017).

³¹ Parte-hartze errenta (*participation income*): Oinarrizko Errenta ez bezala, baldintzapeko errenta izango litzateke, banakoak jardura ekonomian parte hartzearen truke jasotzen duen errenta. Kapital-dirulaguntza (*capital grant*): Helburu zehatz batzuetarako gobernuak emandako dirulaguntza. Soldata-soziala (*social wage*): funtsa publikoek hornitutako zerbitzuak (hezkuntza, osasuna...).

³² Printzipioz, pobrezia-atalasearen parekoa izan beharko litzateke. Hala, batzuek gutxieneko soldataren zenbatekora hurbitzen dute (egun, 950€). Hala, burutu diren kalkuluen arabera 873€koa izatea proposatzen da (ToShare Begiratokia, 2020a).

³³ Gogoan izan Oinarrizko Errentaren ezaugarri bat bere unibertsaltasuna dela.

Gainera, errenta hau etxeko kontraboteretzat har daiteke, baldintzagabeko baliabideak eskainiaz, etxe barruan etxeko lanak eta erantzukizunak proposatu edo ezartzea baimenduz (La Marea, 2020). Alabaina, kritikak ere jaso izan ditu. Hasteko, alderdirik ahulena bere genero neutraltasuna izango litzateke. Egia da tresna bezala genero arrakala murrizteko baliatu daitekeela, baina ez da haren helburu nagusia, eta horregatik, tresna horren atzean teoria eta diskurtso bat egotea beharrezkoa da, ziur izateko hark generoaren arabera lan banaketa eta erreproduzio-soziala bere oinarrien barne hartzen dituela (Weeks, 2011, 147-149). Arriskua beraz, etxean egiten den ordaindu gabeko lanaren analisiari espaziorik ez ematea da, eta batez ere, generoaren inguruko neurriak hartzean, beharrezkoa da aurretiaz azterketa egitea (Federici et al., 2019, 40; Weeks, 2011, 147-149; ToShare Begiratokia, 2020b).

2. ORDAINDU GABEKO LANA ETA HARTU DAITEZKEEN POLITIKAK

Ordaindu gabeko etxeko lanean izan dezaten eraginaren arabera bi multzotan sailka daitezke politikak: i) neurri zuzenak, esplizituki ordaindu gabeko lanean eragitea helburutzat dutenak; eta, ii) zeharkako neurriak, nahiz eta bestelako helburua izan ordaindu gabeko etxeko lanean ere eragiten dutenak (Swiebel, 1999, 15).

2.1. ZUZENEKO NEURRIAK

Lehenengoak, neurri zuzenak, bi azpiataletan, “R Hirukoitzaren” hurbilketa eta genero berdintasunerako neurrietan banatuko dugu. Modu hortara, lehenik ordaindu gabeko etxeko lanaren izaerari behatuko zaio, eta ondoren genero arrakalan murgilduko gara.

“R Hirukoitzaren” hurbilketa Diane Elsonen sortu zuen, helburutzat ordaindu gabeko lana ekonomia *mainstreamean* txertatzea zuen, hura murriztuz eta berrantolatuz. Hiru R horiek ingelesezko *recognition*, *reduction* eta *redistribution*etik datoz. Aitorpenari (*recognition*) dagokionez, lan horri ikusgarritasuna ematean datza, denbora-erabilera inkestak egikaritzuz, zeintzutan parte-hartzearen eta teknologiaren erabileraren inguruko informazioa batzen den, lan honen funtsezko zehaztasunak estimatzen diren eta lan honetan gobernuak duen parte hartzea kalkulatzeko. Ordaindu gabeko lanaren murrizketa (*reduction*) hiru bide hartuta gauza daiteke: teknologia garatuz, azpiegiturak zuzkituz and oinarriko zerbitzuak eskura jarritz. Azkenak, birbanaketak (*redistribution*) arau eta ohitura patriarkalean aldaketa galdatzen du, horren alde gobernuak pizgarriak eskaini ditzakeelarik (Hirway, 2015, 14-15).

Ordaindu gabeko etxeko lana ikusgarri egiteko modu bat haren balioa dirutan kalkulatzeko litzateke, eta beraz, aurreko atalean azaldu bezala, kontu sateliteetan barneratzea. Honekin batera, lan hau aitortzeko beste bide bat horren burutzea ordaintzea litzateke, besteak beste, arestian garatu bezala, soldata bat ordainduz (Swiebel, 1999, 16). Edozein kasutan, nahiz eta azken honek lana aitortu, aztertzeke gelditzen da ea bestelako alderdietan ere aldaketak suertatuko litzatekeen

(genero arrakala murrizten, emakumeen independentzia ekonomikoa bermatzen eta abar), azken finean etxeko lanean merkatu-lanean dauden gabezia berdinak (edo gehiago) egongo lirateke.

“R Hirukoitzaren” hurbilketak proposatutako neurriak bestelako eremutan ematen diren neurriekin alderatzea beharrezkoa da; gehienbat genero berdintasunaren inguruko neurriei dagokielarik, behean zerrendaturik daudenak (Swiebel, 1999, 17). Ordaindu gabeko etxeko lanaren bilakaera aztertu dugun atalean ikusi bezala, badago berdintasuneranzko joera, emakumeek lan-merkatuan parte hartzea handitzearen eta generoen arteko berdintasunak duen babesaren ondorioz, baina oraindik neurri horien beharra agerikoa da (Swiebel, 1999, 17-18).

2.1.1. Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak

Zabaldutako dira lana eta familiaren alorrak orekatzeko neurriak, besteak beste amatasun eta aitatasun eszedentzien bitartez, eta azken hilabeteetan urrutiko lanaren ezarpenaren bitartez. Neurri hauen helburua emakume eta gizonentzat lan-merkatuan aukera eta trataera berdinarik sortzea da horrek ordaindu gabeko etxeko lanaren banaketan ere eraginak sortuz. Gainera, familiengan izan ditzakeen inplikazioez gain neurri honek abantaila ekonomikoak ere baditu: produktibitatea hazten da, eta txandakate-tasa, kostu eta absentismo-indizea murrizten dira (Antonopoulos, 2009, 35). Era berean, hiru neurri mota ezberdin daitezke (Antonopoulos, 2009, 36): egunerokotasuna ezartzea (adibidez, lanaldiaren murrizketa eskatzea), jazoera garrantzitsuak moldatzea (zaindu behar den norbaitek gaixotasun luze bat badu edota ume baten jaiotzan, kasu) eta epe-motzeko larrialdiekin moldatzea (adibidez, adintxikia gaixotu eta medikuarenera eraman behar denean).

Hala ere, ez lizateke ulertu behar emakumei soilik zuzenduriko neurria dela. Izan ere, genero berdintasuna sustatzeko, familian ardatzen diren erreproduzio sozialekiko alternatibak proposatu behar dira, eta beraz, gizoni ere bideratu beharreko neurriak dira, emakumei soilik aplikatuz gero genero arrakala elikatuko lituzkeen irudiak berrindartuko bait lirateke (Antonopoulos, 2009, 43; Hirway, 2015, 21). Horrez gain, gogoan izan behar da lanaldi partzialak kasu askotan ez dituela emakumeak ordaindu gabeko erantzukizunetatik askatzen eta aldi berean ez diela independentzia ekonomikorako nahikoa diru-baliabide eskaintzen (Swiebel, 1999, 18).

Zehazki aitatasun eta amatasuneko eszedentziei dagokionenez, amatasunarengatiko eszedentzia luzatzeak eragin negatiboa izan dezake, emakumea lan-merkatutik urrunduz, eta aldiz,

aitatasuneko eszedentzia luzatzeak ordaindu gabeko lanetan gizonen parte hartzea handitzen du, etxeko produkzioko genero arrakala murriztuz³⁴ (NDF, 2019, 24).

2.1.2. Zerbitzu publikoen hornidura: hornidura unibertsala

Hornidura unibertsalaren adierazle nagusia Eredua Nordikoa³⁵ litzateke, non Estatua umezaintza, eskolaz kanpoko programak, zaharren zaintza eta osasun eta hezkuntza zerbitzuen hornitzaile zuzena den. Honekin batera aitatasun eta amatasun eszedentzia luzeekin eta bestelako zerga-pizgarriekin osatzen da, ordaindu gabeko zama-erreproduktiboa murriztuz eta ondorioz, emakumeen lan-merkatuko parte-hartze tasa handituz (Antonopoulos, 2009, 31).

Espainiaren kasuan, Europako beste Estatuarekin alderatuta gizarte-politikek garapen murrizta izan dute, zaintzak eta etxeko lanak familiarrean eta emakumeen lanean oinarritu direlarik. Honen adibiderik argiena Menpekotasun Legearean desartikulatzea da, zeinak zaintzen pribatizazioa dakarren eta zama familia eta emakumeengan jartzen duen (Comas d'Argemir, 2014). Horregatik, Menpekotasun Legea bezalako araugintza gehiago elikatzea beharrezkoa da, gizarte-babesa handituz.

Halaber, kasu askotan azpiegituretan egindako inbertsioak eta gizarte-zerbitzuetarako gastu publikoa garapen politika orokorren barne egoten da, haren lehenengo helburua ez delarik emakumeen ordaindu gabeko lana arintzea (Swiebel, 1999, 18).

2.2. ZEHARKAKO NEURRIAK

2.2.1. Errenta-politikak

Soldata-politikek ez bezala, errenta-politikek lan jakin bat egikaritzearen errenta bat jasotzean dautza (Swiebel, 1999, 21). Honen adibide nagusiak familian oinarritutako diru-transferentziak edota Oinarrizko Errenta Unibertsala lirateke (nahiz eta azken hau baldintzagabekoa izan).

Familian oinarritutako diru-transferentzien neurriari dagokienez, umeak dituzten familiak ditu jomugatzat, baina baldintza ezartzen du: hilabeteroko diru-transferentzien truke ume horien amak epe laburrean umearen ongizatea eta epe luzean umearen enplegarritasuna sustatzea helburu dituen giza-kapitalaren inbertsioetan lanean aritu beharko du. Programa horien adibide dira “Bolsa Familia” Brasilen eta “Oportunidades” Mexikon (Antonopoulos, 2009, 33). Bitxia da

³⁴ Espainiar legegintzari dagokionez, 2019 urtean egindako aldaketa dela eta, 8 asteko aitatasun-eszedentzia ezarri zen, 2021ra arte 16 astera luzatuko delarik (amatasun-eszedentzia berdinduz). Hala, Eusko Jaurlaritzak 16 asteko aitatasun-baimena ezarri zuen 2019an, EAE Estatu-mailan aitzindari izanik.

³⁵ Suedia, Norvegia, Finlandia eta Danimarkan, besteak beste, ezarritako erredua (Antonopoulos, 2009, 31).

emakumeak horrelako neurrien bitarte direla; izan ere, haien bidez bideratutako baliabideak umeen eta oro har familien ongizateetan hobekuntza bilakatzen dira (Antonopoulos, 2009, 34).

Oinarrizko Errenta Unibertsalari gagozkiolarik, arestian aipatutakoa azpimarratu beharko litzateke. Hala ere, gogoan izan behar da oso toki gutxitan (Alaskan eta Finlandian, kasu) bihurtu izan dela errealitate, eta beraz, momentuz esperientzia bat soilik dela; eta ondorioz, haren inguruko iritziak anitzak dira. Ahots baikorrenek ordaindutako eta ordaindu gabeko lanetan birrantolaketa bat egongo dela aurreikusten dute, generoen arteko arrakala berdinduz (Swiebel, 1999, 21).

2.2.2. Enplegu eta lan-merkatuko politikak

Enplegu-politikak

Normalean enplegua bermatzeko programa publikoek azpiegituretan inbertitu izan dute, gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu-publikoen efizientzia eta hobekuntza hornitu beharrean (Antonopoulos, 2009, 32). Izan ere, azpiegitura egokian eta zerbitzu-publikoetan (ura, saneamenduan, elektrizitatea eta garraioan) inbertsio publikoak eginez gero ordaindu gabeko lanaren zama arindu daiteke. Azpimarratzekoa da azpiegitura digitalean egindako inbertsioek gero eta gehiago duten garrantzia, «gig economy» deritzonaren garapena dela eta (NDF, 2019, 20). Ondorioz, enplegua bermatzeko programen sostengurako har daitezkeen neurriak dira, batez ere, ura, energiaren... hornidura eta umezaintzarako instalazioen, aureskolen, lehenengo hezkuntzako eskolen, osasun zentroen, errepide-sareen... eraikitzea (Antonopoulos, 2009, 45).

Bestalde, hazkunde ekonomikorako eta enplegua sustatzeko gobernu-neurriek ordaindu gabeko lanean eragin ezberdinak izan ditzakete. Adibidez, gastu publikoa murrizten denean defizit fiskaleko helburuetara hurbiltzeko, besteak beste osasunaren, hezkuntzaren eta zerbitzu publikoengan egindako gastua murrizten da, zerbitzu hauek pribatizatzen eta garestitzen direlarik, eta ondorioz, horri aurre egitearren etxeko produkzioan barneratzen dira, etxeetako ongizatea eta giza-kapitala murriztuz, ordaindu gabeko lan hori gehienbat emakumeek egiten dutelarik³⁶ (Swiebel, 1999, 23; Hirway, 2015, 13). Ildo hori jarraitzen dutek neurriek, beraz, ordaindu gabeko lanaren kostua ez dute haintzat hartzen, haren eskaintza infinituko elastikoa dela ulertuz (Antonopoulos, 2009, 28-29).

³⁶ Ordaindu gabeko etxeko lanaren bilakaera aztertzean 2013an ordaindu gabeko lanari merkatuko lanari baino denbora gehiago eskaini zitzaioela ikusi zen, enpleguaren krisia dela eta.

Azkenik, zergen aitopenari dagokionez, zerga-sistemak bikoteei zergak bateratzeko gomendatzen badie, bigarren soldata-iturriak, askotan emakumea izaten dena, zerga-tasa marginal altuagoa ordaintzen du zergak banaka aitortuko balituzte baino (NDF, 2019, 21).

Lan-merkatuko politikak

Diane Elsonen hitzak gogora ekarrita, Hirway-k (2015, 12, 20) politika neoliberalak hazkunde ekonomikoa xedetzat duten neurriak askotan emakumeen kontura hartu izan direla azpimarratzen du: emakumeak merkatuko “malgutasunerako” prest daude, eta beraz, normalean balio-katearen amaierako lan prekarioak onartzeko prest daude. Flexibilitate horrek, gainera, gehienetan emakumeek egindako etxeko produkzioa sustatzen du.

Bide horretatik, gobernuek zenbait neurri hartu izan dituzte: i) Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanak uztartzeko ordutegi malgua; ii) Etxearen eta lan-zentroaren arteko distantzia laburtzea (urrutiko lanaren ezarpena.); iii) Aitatasun/amatasun eszedentziak eta prestazioak; iv) Pizgarri finantziarioak eta gurasoentzako diru-laguntzak; v) Umezaintzarako instalazioak; vi) Emakumeak kontratatzearen truke enplegu-emaileei pizgarriak ematea; vii) Entreinamendu, birziklatze eta abileziak barneratzeko emakumeentzako programa bereziak (Hirway, 2015, 21).

Bestalde, lan-merkatuari soilik dagozkion faktore batzuk garrantzitsuak dira. Lehenik, emakumeek ordaindutako eta ordaindu gabeko lanak alderatuko dituzte, kostu eta onurei dagozkielarik. Bigarrenik, hartutako neurriek emakumeak lan-merkatuan sartzeko edo mantentzeko erabakiengan eragin dezakete. Azkenik, lan-merkatuko programek, instituzioek, zerga-politikek³⁷ eta ekonomikoak ez diren faktoreek ere egina dute (NDF, 2019, 19-20).

Hori horrela, lan-merkatu eraginkorrak ordaindu gabeko laneko genero arrakala murrizten laguntzen du, eta era berean, lan-merkatu aktiboko programei esker emakumeak lan-munduan mantentzen laguntzen dute. Berdina gertatzen da, lan-araugintza anitza eta zehatza dagoen kasuetan. Soldata arrakalak, ordea, eta «soldata berdina lan berdinarengatik» urratzeak emakumea ordaindu gabeko lana egitera bultzatzen du, estimulu gabe utziz (NDF, 2019, 22).

Ondorioz, eta laburtuz, emakumeek lan-merkatuan parte hartzeko hesiak ezabatuz gero, emakumeek etxeko produkzioan ematen duten denbora murrizten da, gizonena hazten doala, eta beraz, genero arrakala murriztuz (NDF, 2019, 27).

³⁷ Adibidez, enpresek langileengatik ordaindu beharreko kostuei dagozkielarik.

V. ONDORIOAK

Egunerokoan erabiltzen diren ohiko estimazio ekonomikoetatik at kokatzen da ordaindu gabeko etxeko lana, ez ordea sortzen den balioak ekonomian eraginik ez duelako, aitzitik, baloratzeko zaila den eta lan-merkatutik kanpo ezkutuan dagoen jarduera delako. Haatik, azken hamarkadetan ordaindu gabeko lanaren balorizaziorako mugimenduak direla eta kontu sateliteen bidez integratzen saiatu izan da, subjektu bakoitzak oro har lan horietan eman duen denbora oinarritzat hartuta.

Denbora-erabilerari buruzko inkestei esker ordaindu gabeko etxeko lana lan feminizatua dela argi adieraz daiteke. Azken urteotan berdintasuneranzko joera badago, baina hori ez da guztiz erreala; izan ere, datuen arabera, 2019. urtean EAEn emakumeek batez bestez 2,1 ordu eta gizonek 1,5 ordu eskaini izan zioten ordaindu gabeko etxeko lanei. Beraz, azpimarratu behar da berdintasunerazko joera horrek ez diola etxeko lanen denboraren berrantolaketa bati erantzuten, baizik eta lan hau burutzen hasi den gizon kopuruaren igoerari baizik.

Ondorioz, generoaren araberako lan-banaketaren adierazgarritzat har daiteke ordaindu gabeko etxeko lana, lan erreproduktiboaren baitan kokatuz, eta hura osatzen duten jarduerak bestelako lan ordainduetara zabaltzen direla ikus daiteke, genero-rolak betikotuz. Ordaindu gabeko lanetan aurki daitezkeen genero arrakala, beraz, izugarria da, batez ere zaintzaren, elikaduraren eta garbiketaren aferetan (ez hainbeste borondatezko lanen edota etxeko konponketen gaietan).

Genero arrakala horren aurrean ikasketa-alor anitzetatik neurriak hartzea nahitaezkoa da, eta batera nahiz bestera har daitezkeen erabaki ekonomikoek berebiziko garrantzia daukate, aldaketa materiala gauzatzeko aukera paregabea eskaintzen baitute. Honaino adituen artean adostasuna legoke, baina benetako gatazka hartu behar den estrategia marraztean dago, hau baita gakoa.

Alabaina, aurkezten den aukera-sorta zabala bi taldetan banatuko nuke: i) oro har nagusi den ikuspegi ekonomikoa aldatzea galdatzen dutenak (soldata eskakizunak eta Oinarrizko Errenta Unibertsala); eta, ii) gaur egungo ikuspegi ekonomikoarekin bateragarriak direnak. Lehenengoei dagokienez, oraingoz esperientzia hutsak direla esan daiteke, printzipioz onurak eta akatsak aitortzen zaizkielarik, eta horiek gauzatzeko oztopoak (politikoak, ideologikoak eta finantziarioak, besteak beste) daudelarik. Bigarrenak, aspalditik gure sistema ekonomikoetan ezartzen diren neurriak batzen ditu, Keynesianismotik hona aplikazioan egon direnak, eta haren mugak agerikoak dira.

Aztertutako afera guzti hauen gainean dudak zalantza mahaigaineratu nahiko nuke. Soldata eskakizunei dagokienez, egia da lan erreproduktiboa merkatu-lantzat hartzeak lan-baldintzen hobekuntza eskatzeko eta abarrerako aukera emango lukeela, baina lan guztiak merkatu-lan bilakatzea ez da bilatzen den helburua. Oinarrizko Errenta Unibertsalari dagokienez,

eszeptisizmoz behatu izan dudan gaia da. Egoera honen aurrean azpimarratu beharra dago nahiz eta bi hauen aplikazioak esperientzia soil izan, hauen defentsan atzean dagoen ideak indar handia du batez ere gaur egungo gizartean: sistema hau ez da sostengarria. Zaintza-krisia, kristalezko sabaia, alargunen pentsio baxuak, generoaren araberako lan-banaketa... emakumeei ez ezik ekonomiari eta gizarteari ezkerri eragiten dioten arazoak dira, aurreko ataletan adierazi bezala. Honen aurrean neurri politikoak hartu izan dira: lana eta familiaren arteko bateragarritasunaren ideia lan-arloko printzipioa bilakatu da, amatasun- eta aitatasun-prestazioak berdintzeko erabakia hartu izan da, generoen araberako soldata diferentziarik ez ezartzeko neurriak ezarri dira, zaintzarako laguntza-ekonomikoak eskaini izan dira... Eta dirudienez, nahiz eta gizarteak neurri horiei erantzun, ez da nahikoa izan, genero arrakala oraindik agerikoa delako.

Nire aburuz neurri horiek indartu beharrean daude. Hasteko, lana eta familiaren bateragarritasuneko neurriei dagokienez, nahiz eta genero ezberdinentzat aukera berdinak eskaini, gizonen kasuan pizgarriak ezarri beharko lirateke, genero-rolak gainditzearen. Jarraitzeko, berebiziko garrantzia dute enplegu- eta lan-merkatuko politikek. Zerbitzu publikoetan egindako inbertsioa handitu beharra dago, ordaindu gabeko etxeko lanen zama arindu ahal izateko, batez ere adintxikien zaintzari, osasunari eta garraio-bide-sareei dagokienez. Horrez gain, egun handia den eta etorkizun hurbilean harik eta gehien zabalduko den prekarizazioari aurre egin behar zaio, enplegu-politika argiak ezarri eta «malgutasuna» aldi batera utzita lan-baldintza duinak, berdintasunean eta segurtasunean oinarrituak aplikatu beharra dago. Labur, osasunean, hezkuntzan eta gizarte-politikan gastu publikoa murrizteak, pribatizazio-prozesuak, desregularizazioak eta zaintza-krisiak generoa ardatz bezala duen egunerokoan segurtasun-falta sorrarazten dute, emakumeak izanik bizitza mantendu edo zaintzearen arduradun-sozial nagusiak: bizirautearen feminizazioa deituriko fenomeno (Carrasco Bengoa, 2017, 66).

Azkenik, errealitatean hartutako neurri horien politizazioa argia da, eta COVID-19aren ondorioz sortzen ari den krisian gastu publikoa murriztea gerta daitekeen zerbait da. Horregatik, eta honekin soldaten eskakizunekin eta Oinarrizko Errenta Unibertsalarekin bat egiten dut, eta ikuspuntu aldaketa bat beharrezkoa dela aldarrikatzen dut. Ordaindu gabeko lanen garrantzia azpimarratzea eta hauek ikusgarritasuna lortzea epe laburreko helburua litzateke, baina epe luzean XXI. mendeko gizarteak aldaketa bat eskatzen duelakoan nago. Horregatik, politika ekonomikoak eta industria-politikak ekonomia-balioetik haratago, gizarte- eta ingurumen-balioetan oinarritzea funtsezkoa dela uste dut. Azkenik, etxe barruan ematen diren jarduerak kanporatzeko eta errotik eraldatzeko beharra ezinbestekoa da, bai hornidura publikoen bitartez, eta bai bestelako bideak erabiliz, adibidez, ordaindu gabeko etxeko lanen sozializazioa burutuz. Izan ere, lan hauen

sozializazioaren bidez zerbitzu horien antolaketa garatuz, emakumeak askatuko dituen eta guztiontzako³⁸ eskuragarriak diren kalitatezko zerbitzuak eman nahi dira (Etxeberria, 2021).

Hitz gutxitan, arestian adierazitakoa borobiltzearean, etxe barruko prozesuak politizatu beharra dago, horiek ikusgarri bilakatuz, eta gai horiei heldu behar zaie: askatasun-eremu erreal bilakatzearren, gaur egunean askatasunari erantzuten ez dioten egoerak direla aitortu beharra dago. Horretarako ezinbestekoa da etxeke barruko harreman-horizontala eraikitzea, eta gauzatu beharreko jardueren eta baliabideen birbanaketa gauzatzea (Pérez Orozco, 2014, 247-248).

³⁸ Gogoan izan behar da emakume langileak izaten direla haien etxeetan eta azpikontratazioaren bidez besteen etxeetan lan hauetan aritzen direnak. Horregatik ere ikuspuntu hori ez galtzea garrantzitsua da.

ERANSKINA I

3. Taula. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanari eskaini zaion denbora KGEE Estatuetan azken urtean (minutuak eguneko). 2017. urtea.

	Ordaindu gabeko lanak		Lan ordaindua		Lana guztira	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
KGEE bb	135,8	262,4	317,4	217,7	453,2	480,1
Espainia	145,9	289,1	236,2	166,8	382,1	455,9
Frantzia	134,9	224	235,1	175,4	370,1	399,4
Alemania	150,4	242,3	289,5	205,5	440	447,7
Italia	130,7	306,3	220,8	133,1	351,5	439,5
Portugal	96,3	328,2	372,3	231,3	468,6	559,4

Iturria: Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (2020). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako taula.

4. Taula. Amatasun prestazioen bilakaera, hartzaillearen generoaren arabera (ehunekoetan). 2017. urtea.

	Emakumeak	Gizonak
2003	%97,3	%2,7
2008	%96,3	%3,7
2017	%95	%5

Iturria: Emakunde (2018, 93). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

5. Taula. EAEn familia zaintzeko eszedentziak, generoaren eta zainketa motaren arabera. 2017. urtea.

	SEME ALABAK ZAINTZEA		SENTARTEKOAK ZAINTZEA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2008	%95	%5	%85	%15
2013	%94,6	%5,4	%82,5	%18,5
2017	%92,6	%7,4	%82,1	%17,9

Iturria: Emakunde (2018, 94). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

6. Taula. EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleria, etxeko lanak egiteko maiztasunaren, generoaren eta jarduerarekiko erlazioaren arabera (milakoetan). 2017. urtea.

	Emakumeak	Gizonak
Biztanleria aktiboa: ohikotasunez	%56,9	%43,1
Biztanleria aktiboa: inoiz ere ez	%15	%85
Biztanleria ez-aktiboa: ohikotasunez	%70,8	%29,2
Biztanleria ez-aktiboa: inoiz ere ez	%39,4	%60,6

Iturria: Emakunde (2018, 97). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

7. Taula. Merkatu-kanpoko eta ordaindu gabeko etxeko jarduera produktiboen balioa (milioi eurotan). 2010. urtea.

FUNTZIOAK	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Etxebizitza	91.002	29.861	61.141
Elikadura	145.826	42.431	103.395
Jantziak	43.962	7.870	36.092
Zaintzak	78.145	29.842	48.303
Garraioa	46.921	21.376	25.544
Borondatezko lanak	20.343	8.520	11.823
GUZTIRA	426.199	139.899	286.299

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2015, 27). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

8. Taula. Merkatu-kanpoko eta ordaindu gabeko etxeetako jarduera produktiboen kontua (milioi eurotan). 2010. urtea.

Merkatu-kanpoko eta ordaindu gabeko etxeko jarduera produktiboen balioa	426.199
+ Etxeetako merkatu-kanpoko jarduera produktiboen gaineko zergak	0
- Etxeetako merkatu-kanpoko jarduera produktiboei diru-laguntzak	0
+ Kapital finkoko kontsumoa	20.516
Etxeetako merkatu-kanpoko jarduera produktiboen erantsitako balio gordina	446.516
+ Bitartekoen kontsumoa	122.455
Etxeetako merkatu-kanpoko jarduera produktiboen balio totala	569.170

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (2015, 34). Egileak iturriko informazioa erabiliz moldatutako grafikoa.

BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK

Bizkaiko Foru Aldundia (2003). *Etxekoandreaken/etxekogizonaren: Ikerketa juridikoa eta baliospen etikoa*. Vitoria-Gasteiz: Bizkaiko Foru Aldundia.

Carrasco Bengoa, M^a Cristina (1991). *El Trabajo Doméstico: Un Análisis Económico*. Madril: Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministeritza.

Dalla Costa, Mariarosa eta James, Selma (1971): *Women and the subversion of the community*. New York: Pétroleuse Press.

Durán Heras, María Angeles (2012). *El trabajo no remunerado en la economía global*. Bilbo: Fundación BBVA, 1. edizioa.

Federici, Silvia (2013). *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*. Madril: Traficantes de Sueños.

Federici, Silvia (2017). *Soldataren Patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak* Iruñea: Katakarak Liburuak.

Federici, Silvia eta Austin, Arlen (2019). *Salario para el Trabajo Doméstico. Comité de Nueva York 1972-1977: Historia, teoría y documentos*. Madril: Traficantes de Sueños.

Goikoetxea, Jule et al. (2019). *EAEko demokrazia patriarkala: Lan ordaindua, lan ez ordaindua, ongizate erregimena eta eremu sozio-politiko*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/beca.2017.2.Demokrazia_patriarkala.pdf

Harrison, John (1975). *Economía política del trabajo doméstico*. Bartzelona: Editorial Anagrama.

Pérez Orozco, Amaia (2006). *Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*. Madril: Kontseilu Ekonomiko eta Soziala. Eskuragarri hemen: http://www.gemlac.org/attachments/article/338/amaia%20perez%20orozco_2006.pdf

Pérez Orozco, Amaia (2014). *Subversión feminista de la economía*. Madril: Traficantes de Sueños.

Weeks, Kathi (2011). “Working Demands: From Wages for Housework to Basic Income”. *The Problem with Work: Feminism, Marxism, Antiwork Politics, and Postwork Imaginaries* liburuan. Durham; London: Duke University Press. (113-149).

ARTIKULUAK

Albarracín, Jesús (1988). “El trabajo doméstico y la ley del valor”. *Revista Imprecor*, 63. zenbakia.

Benería, Lourdes (2019). “Reproducción, producción y división sexual del trabajo”. *Revista de economía crítica*, 28. zenbakia, 2. seihilekoa, 129-152. or. Eskuragarri hemen: http://www.revistaeconomicacritica.org/sites/default/files/LourdesBeneria_division-sexual-del-trabajo.pdf

Carrasco Bengoa, M^a Cristina (2017). “La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de producción”. *Ekonomiaz aldizkaria*, 91. zenbakia, 1. seihilekoa, 52-77. or.

Comas d'Argemir, Dolors (2014a). *La crisis de los cuidados como crisis de reproducción social. Las políticas públicas y más allá*. XIII Congreso de Antropología de la Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili. Eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/265598631_La_crisis_de_los_cuidados_como_crisis_de_reproduccion_social_Las_politicas_publicas_y_mas_alla

Ezquerria, Sandra (2010). “La crisis de los cuidados: orígenes, falsas soluciones y posibles oportunidades”. *Viento Sur*, 108. zenbakia, 37-43. or.

Hirway, Indira (2015). “Unpaid Work and the Economy: Linkages and Their Implications”. *Levy Economics Institute of Bard Collage*, 838. zenbakia, 8-26. or. Eskuragarri hemen: http://www.levyinstitute.org/pubs/wp_838.pdf

Rodríguez Álvarez, Arantxa eta Ugidos Olazabal, Arantza (2017): “Tiempos, trabajos y desigualdad de género en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado español”. *EHUko Ekonomiaz aldizkaria*, 91. zenbakia, 1. seihilekoa.

Scarafoni, María Eugenia (2016). “División sexual del trabajo doméstico y el uso del tiempo en las tareas de cuidado”. *Derecho y Ciencias Sociales Aldizkaria*, 14. zenbakia, 127-136. or.

HITZALDIAK

ToShare Begiratokia (2020a). “Aberastasuna banatzea, aukera-berdintasuna eta pobreziaren amaiera, demokrazia indartzea eta herri-subiranotasuna”. *2020ko Oinarrizko Errentari buruzko Tailerra*. EHU/UPVren barne antolatutako tailerra. Bilbo, Otsailak 28. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=r19VDdRD6eM&feature=youtu.be>

ToShare Begiratokia (2020b). “Berdintasuna genero-ikuspegitik”. *2020ko Oinarritzko Errentari buruzko Tailerra*. EHU/UPVren barne antolatutako tailerra. Bilbo, Martxoak 6. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=qX9sd2f7q7k&feature=youtu.be>

TXOSTENAK

Antonopoulos, Rania (2009). *The unpaid care work - paid work connection*. Ginebra: Lanaren Nazioarteko Erakundea. Eskuragarri hemen: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---integration/documents/publication/wcms_119142.pdf

Counting Women’s Work (2018). *Measuring the Gendered Economy: Counting Women’s Work Methodology*. University of Cape Town: Counting Women’s Work. Eskuragarri hemen: <https://www.countingwomenswork.org/news/2018/6/8/cww-working-paper-no4-myect>

Emakunde (2018). *Zifrak 2018. Emakumeak eta gizonak Euskadin*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. Eskuragarri hemen: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2018.pdf

Espainiako Estatistika Institutua (2015). *Propuesta de cuenta de producción de los hogares en España en 2010. Estimación de la serie 2003-2010*. Madril: Espainiako Estatistika Institutua. Eskuragarri hemen: https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INEDocTrabajo_C&cid=1259947428954&p=1254735116586&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout

Eustat (2004a). *Cuenta satélite de la producción doméstica*. Donostia: Eustat. Eskuragarri hemen: https://www.eustat.eus/elementos/ele0001200/cuentas-satelite-de-la-produccion-domestica/inf0001210_c.pdf

Eustat (2015). *Dos décadas de cambio social en la c.a. de euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de Presupuestos de Tiempo 1993-2013*. Vitoria-Gasteiz: Eustat. Eskuragarri hemen: https://www.eustat.eus/elementos/ele0013200/dos-decadas-de-cambio-social-en-la-ca-de-euskadi-a-traves-del-uso-del-tiempo-1993-2013-encuesta-de-presupuestos-de-tiempo/inf0013239_c.pdf

Instituto de la mujer y para la Igualdad de Oportunidades (2020). *La perspectiva de género, esencial en la respuesta a la COVID-19*. Madril: Berdintasunerako eta genero-indarkeriaren kontrako Estatu Idazkaritza. Eskuragarri hemen: [https://www.inmujer.gob.es/disenov/novedades/IMPACTO_DE_GENERO_DEL_COVID_19_\(u\).pdf](https://www.inmujer.gob.es/disenov/novedades/IMPACTO_DE_GENERO_DEL_COVID_19_(u).pdf)

Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (2018). *Including unpaid household activities: An estimate of its impact on macro-economic indicators in the G7 economies and the way forward*. Paris: Estatistika eta Datu Zuzendaritza. Eskuragarri hemen: https://www.oecd-ilibrary.org/economics/including-unpaid-household-activities_bc9d30dc-en

Lanaren Nazioarteko Erakundea (2011). *Medición del valor económico y social del trabajo doméstico*. Ginebra: Lanaren Nazioarteko Erakundea. Eskuragarri hemen: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_protect/---protrav/---travail/documents/publication/wcms_159561.pdf

Lanaren Nazioarteko Erakundea (2016). *Women at work. Trends 2016*. Ginebra: Nazioarteko Lanaren Bulegoa. Eskuragarri hemen: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/--dcomm/---publ/documents/publication/wcms_457317.pdf

Nazio Batuen Erakundea (2020b). *Policy brief: the impact of Covid-19 on women*. New York: Nazio Batuen Erakundea. Eskuragarri hemen: https://www.un.org/sites/un2.un.org/files/policy_brief_on_covid_impact_on_women_9_apr_2020_updated.pdf

Nazioarteko Diru Funtza (2019). *Reducing and Redistributing Unpaid Work: Stronger Policies to Support Gender Equality*. Washington DC: Gai Fiskalen Saila. Eskuragarri hemen: <https://www.imf.org/en/Publications/WP/Issues/2019/10/15/Reducing-and-Redistributing-Unpaid-Work-Stronger-Policies-to-Support-Gender-Equality-48688>

Sweibel, Joke (1999). *Unpaid work and Policy-Making. Towards a Broader Perspective of Work and Employment*. New York: Nazio Batuen Erakundea. Eskuragarri hemen: <https://www.un.org/esa/desa/papers/1999/esa99dp4.pdf>

DATU-BASEAK

Eustat (2016a). *KSEn sartu gabeko etxeko lan ez-merkatukoaren eta ez ordainduaren balorazioa; Euskal AEn, lurralde, sexu eta funtzioen arabera. 2013* [Datu-basea]. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0000600/ksen-sartu-gabeko-etxeko-lan-ez-merkatukoaren-eta-ez-ordainduaren-balorazioa-euskal-aen-lurralde-sexu-eta-funtzioen-arabera/tbl0000606_e.html

Eustat (2020ko ekainaren 19a). *Euskal AEko landunak, egunean etxeko lanetan emandako ordu kopuruari jarraiki, ezaugarri soziodemografikoen arabera (ehunekoa eta batez besteko puntuazioa)* [Datu-basea]. Eskuragarri hemen: https://es.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX_3331_cvl01.px/table/tableViewLayout1/?rxid=4d9d4b83-f86a-4227-b977-26011ba299db

Eustat (2020ko uztailaren 21a). *Etxeko lanak egiten dituen 16 urte eta gehiagoko biztanleria, hiruhilekoaren eta etxeko lanak egiten dituen maiztasunaren arabera, sexuari eta jarduerarekiko erlazioari jarraiki (milaka)* [Datu-basea]. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011500/etxeko-lanak-egiten-dituen-16-urte-eta-gehiagoko-biztanleria-hiruhilekoaren-eta-etxeko-lanak-egiten-dituen-maiztasunaren-arabera-sexuari-eta-jarduerarekiko-erlazioari-jarraiki--milaka-1/tbl0011539_e.html

Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (2020): *Employment: time spent in paid and unpaid work, by sex*. [Kontsulta eguna: 2020ko irailaren 21a]. Hemendik hartua: <https://stats.oecd.org/index.aspx?queryid=54757>

ALBISTEAK

Babiker, Sarah eta Porta, Carme (2017). “Un horizonte feminista: la renta básica”. *El Salto Diario*. Ekainaren 7a. Eskuragarri hemen: <https://www.elsaltodiario.com/renta-basica/renta-basica-universal-salida-feminista-de-la-crisis>

Comas d'Argemir, Dolors (2014b). “La crisis de los cuidados: ¿la “otra” crisis?”. *El Diario*. Apirilaren 9a. Eskuragarri hemen: https://www.eldiario.es/agendapublica/impacto_social/crisis-cuidados_1_4943544.html

Etxeberria, Olatz (2021). “Lan asistentzialak”. *El Salto Diario*. Urtarrilaren 15a. Eskuragarri hemen: <https://www.elsaltodiario.com/cuidados/lan-asistentzialak>

Eustat (2004b). “Ordaindu gabeko etxeko produkzioak Barne Produktu Gordinaren %32,8 hartu zuen 2003an”. *Eustat*. Ekainaren 29a. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0002600/ordaindu-gabeko-etxeko-produkzioak-barne-produktu-gordinaren-328-hartu-zuen-2003an/not0002607_e.html

Eustat (2010). “Euskal AEko ordaindu gabeko etxeko lana BPGren %28,7 izan zen 2008an”. *Eustat*. Ekainaren 29a. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0006100/euskal-aeko-ordaindu-gabeko-etxeko-lana-bpgren-287-izan-zen-2008an/not0006165_e.html

Eustat (2016b). “Euskal AEko ordaindu gabeko etxeko lana BPG-aren % 32,4 izango zen 2013an”. *Eustat*. Otsailaren 26a. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/euskal-aeko-ordaindu-gabeko-etxeko-lana-bpg-aren-324-izango-zen-2013an/not0013261_e.html

Nazio Batuen Erakundea (2020a). “COVID-19: un lugar protagónico para las mujeres”. *UN Women*. Martxoaren 20a. Eskuragarri hemen: <https://www.unwomen.org/es/news/stories/2020/3/statement-ed-phumzile-covid-19-women-front-and-centre> [Kontsulta eguna: 2020/09/12].

Vadillo, Javier (2017). “Euskadi aspira a que la industria aporte el 25% del PIB para recuperar el empleo perdido en la crisis”. *Cinco Días*. Urriaren 7a. Eskuragarri hemen: https://cincodias.elpais.com/cincodias/2017/10/06/companias/1507294915_882750.html

WEBGRAFIA

La Marea (2020/04/07). *¿Por qué la Renta Básica puede interesar al movimiento feminista?*, eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=KDpTaxBFHyo> [Kontsulta eguna: 2020/11/09].

Nazio Batuen Erakundea (2020c). *Goal 5: Achieve gender equality and empower all women and girls*, eskuragarri hemen: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/gender-equality/> [Kontsulta eguna: 2020/10/05]

UN Women (2020). *Gender equality: womens rights in review. Key facts and figures*, eskuragarri hemen: <https://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2020/gender-equality-womens-rights-in-review-key-facts-and-figures-en.pdf?la=en&vs=935> [Kontsulta eguna: 2020/10/05]